

hiruka

175. zenbakia
2021eko urria



PLENTZIA Itsasoari begira

Piratak eta kortsarioak badian

URRIA

PROGRAMAZIOA

ANTZERKIA



MAITASUNAREN ITXIERA

Arriaga Produksioak

Miren Gaztañaga - Eneko Sagardoy

URRIAK 09 LARUNBATA 19:00 / 12€

MUSIKA



XABI ABURRUZAGA & YVES LAMBERT

URRIAK 11 ASTELEHENA 19:00 / 10€

HAUR ANTZERKIA



PEREZ SAGUTXOA

Glu-glu

URRIAK 17 IGANDEA 17:00 / 8€

ANTZERKIA



ATZERRIAN LURRA GARRATZ

Huts Teatroa - Artedrama

URRIAK 23 LARUNBATA 19:00 / 12€



94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo.eus



EL CORREO



SALMENTA / VENTA
Kutxabank sarean / Red Kutxabank
MUXIKABARRIA (94 466 01 23)
Romo Kultur Etxea (94 466 00 22)

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Plentzia, itsasoari begira beti
- 14 Euskarari, atera kontuk!
- 15 Zinemaz bizi
- 16 Begia eta bisturia
- 17 Barneratutakoa askatzen
- 18 Hirudika
- 24 Lehen/orain eta Urribitakora
- 26 Paul Bilbao eta Beñat Garaio, euskalgintzaren inguruan berbetan
- 30 Matxalen de Pedro, Busterra Herri Antzerki Elkarte
- 32 Irakurrian
- 33 Musikhariak
- 34 Ibon Larrinaga, boxeolaria eta entrenatzailea
- 35 Higinio Rivero, piraguita paralinpikoa
- 37 Usategi
- 38 Argazkilariaren txokoa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Faceguk
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Joanes Atxa, Iñigo Esteban Lezkano, Ina Gastaka Eguskiza, Ainhoa Ortells, Uxune Iriondo Urbitzazu, Joseba Santxo.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia


Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundua.

(ka)kaleak

MAITANE NEREKAN UMARAN Filosofia irakaslea



Nire karpetatxoan arakatzen jarri, eta hara non aurkitu dudun 2016an idatzi eta gaur hona ekarri gura dudana: norenak dira kaleak? Egunerokotasun handiko gaia. Azken urtean, herrira hurbiltzean, sentitu dut kaleak kartutxeradun *cowboy*-entzat eta negozio-gizonentzat eginda daudela. Ezin kalean jan edo edan, ez zutunik egon, ez taldean berba lasai egin, ez plazan dantzatu, ez jolastu... ezin kalean arnastu! Pandemia aitzakia besterik ez da izan. Getxon (eta Uribe Kostan oro har, nahiz eta zenbait herrik errazago duten), kaleen erabilera pribatizatzaile eta hiperkontrolatua aspaldiko kontua da. Postaleko herria izatearen zerga: argazki ederreko herrian, kaleak ez dira denonak. Horregatik, inoiz baino ezinbestekoagoa deritzot kaleen erabilera herrikoi, aske eta ez-pribatizatzailea aldarrikatzea. Ez diezaguten esan osasun kontua denik; orain, ustez gure «osasunaz» arduratzen diren horiek ez dute inolako osasun irizpiderik izan urbanismo basatia bultzatu dutenean. Jai herrikoiak, Indabada, zuzeneko kultur emanaldiak, umeen jolas askea, poteo herrikoa, dantzaldiak... Inoiz baino beharrezkoagoak dira osasunaren izenean. Bestela, birrikak sano dituzten baina ondokoaren begiradaz beldur diren zonbiak izaten amaituko dugu.

52 urte

HODEI RODRIGUEZ ARRUTIA Sukar Horia



Gauza asko aldatu dira azken 52 urteetan: panazko jertseek aspaldi utzi diote modan egoteari, Bilbok bere hedaduraren bi heren galdu ditu, diktadura frankistak demokrazia liberalari lekua utzi dio eta klima bera ere aldatzen ari dela dioskute nekazari eta zientzialariek.

Gauza batzuk, baina, berdin mantendu dira: Plentziako trenak martxan darrai, izena aldatu badiote ere, El Correo goizero Bizkaiko kioskoetara ailegatzen da, poliziak grebalariak jipoitzen ditu eta Erandiok Espainiako udalerrri kutsatuenetarikoa izaten jarraitzen du. Bai, Erandioko herritarrek kutsadura salatzeke kaleak hartu zituztela 52 urte betetzen diren honetan, ikerketa berri batek berriro azpimarratu ditu erandioztarrek sufritzen dituzten kutsadura-maila kezkarriak, Madril eta Bartzelonaren kutsadura-mailak ere gaindituz.

Egia da, gaur, agian, arropa lasai eskegi dezaketela, baina Altzaga eta Astrabuduko auzokideek egunero arnasten dituzten sustantzia kaltegarriak eragina izaten jarraitzen dutela, euren bizi itxaropena laburtuz.

Horregatik da hain garrantzitsua 52 urteren ostean, Josu eta Anton gogoan izatea. Espero dezagun haien memoria beste 52 urtez piztuta mantentzea.

Puntua eta kontrapuntua **Euskararen egoera**

Eutsi

*Antzinako hizkuntza
hizkuntza gardena
zaila zena jakiten
noiz eta norena
erabiliz bizi da
horixe da dena.
Eusteko ginena ta
izango garena
ondo dakigu zer den
egin behar dena!*

**UNAI
MENDIBURU
VALOR**
Algorta

*Horixe egin behar
dugu, zera: ari;
barruak zer eskatzen
digunari adi.
Baina, eustea ginen
eta garenari,
Unai, ez ote da ba
oso karga handi
zamatsua jartzea
gure buruari?*

**BEÑAT
VIDAL
GURRUTXAGA**
Getxo



Mailen Mansilla Hula-hoop dantzaria

«Jolasa ez da bakarrik umeen kontua»

Hilaren 21ean zirku ikuskizuna eskainiko du Mailen Mansillak Trotamundos konpainiagaz, Algortako Portu Zaharreko aste kulturalaren baitan.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶


Lau egunez, hamaika kontzertu eta ikuskizun egongo dira Algortako Portu Zaharreko aste kulturalaren baitan, urriaren 21etik 24ra, hain zuzen ere. Bertako auzokide den Mailen Mansillak ere ikuskizuna eskainiko du, Trotamundos konpainiagaz: «Kutxa baten barruan euren tramankuluak, istorioak... euren bizitza osoa eramaten duten bi pertsonaiaren istorioa kontatzen dugu, zirkuaren bidez». Ikuskizun honen istorioa nahiko autobiografikoa da, Mailenek aitortu duenez. Orain dela sei urte heldu zen Euskal Herrira Argentinatik, eta geroztik gurean jarraitzen du: «Hasiera apur bat gogorra izan zen, zerrua grisa, horrenbeste euri... Baina gehien harritu nindue-

nak Euskal Herriko kultura eta nortasun berezia izan zen».

Akrobaziak, malabarrak akro-porteak... zirkua da Mailenen pasioa: «Txikitan, irristaketa artistikoa egiten nuen Buenos Airesen, baina utzi behar izan nuen gurasoek ez zutelako diru nahikorik eskolak ordaintzeko». Baina zalantzarik gabe, hula-hoopa dantzatzea da bere bereizgarri nagusia: «Hula-hoopak ematen dit oreka. Nire elementu propioa da, ez dut inor behar beragaz dantzatzeko. Zirkulu infinitu bat da». Argentinarrak hula-hoop ikastaroak eskaintzen ditu, eta, dioenez, edozeinek dantzatu dezake: «Bai, eta, gainera, jende guztiak irribarre egiten du hula-hoop bat hartzen duenean esku artean, herriko serioenak ere!». Bere ustez, denok egin beharko genuke jolas apur bat gehiago gure egunerokotasunean: «Jolasa ez da bakarrik umeen kontua. Jendeak ez dio bere buruari uzten lasai barre egiten».

Euskal Herriko kultura eta hizkuntza gertuagotik bizi eta ezagutzeko asmoz, izena eman berri du Mailenek euskaltegian: «Ilusioa egingo dit artikulua hau euskaraz irakurri ahal izateak!». ◀

Plentzia, itsasoari begira beti





Plentzia itsasoari lotuta egon da beti, hasiera-hasieratik. Arrantzak ez du pisu handirik izan bertan, bai ordea merkataritzak. Horrela, jarduera komertzial horrek eta garaiko errege-erregina eta nobleekiko harremanek aberastasuna ekarri dute hiribildura, baina baita piratak eta kortsarioak erakarri ere, besteak beste.

Plentziako esaera zahar batek dioenez, «Plentzia, la Gallarda, dio hombres y buques a la Armada. Bilbao, cortés, solo dio tres. Pero Portugalete, la cerrada, esa no dio nada». Ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi heldu zaigu, gutxienez, XVI. mendean hiru fragata bidali omen zirela hiribilduko portutik Espainiako Itsas Armada Garaiezinera; baina, nortzuk izan ziren kostaldeko herri txiki horretatik joan zirenak? Eta, zergatik? Galdera horiei, eta beste gehiagori, erantzuna eman guran, *Plencia: una villa volcada al mar (siglos XIII-XVIII)* liburua argitaratu du Pablo Amores Bilbao historiazale plentziarrak.

Lanbidez ingeniari informatikoa baina pasioz historialaria denak gogoratzen duenez, Plentzia itsasoari lotuta egon da beti; XIII. mendean, Butroeko itsasadarrean, denboraleetatik babestuta eratu zuten lehenengo herria, 1236 inguruan. Hamarkada gutxi geroago, 1299an, Diego Lopez de Harok, hirigutunaren bidez, hiribildu izaera aitortu zion herriari eta, orduetik, ez dira gutxi izan kale eta kanoi horietatik igarotako pertsonai eta pasadizo historikoak. Izan ere, Plentzia, inguruko kostaldeko herriak ez bezala, ez du inoiz arrantza-ohitura handirik izan, inguruneak hala baldintzatuta. Hala, horren ordez, izaera komertziala izan du batez ere: bertako marinelen jarduera nagusia kabotajea izan zen mendez mende, askotariko merkantziak portuz portu garraiatuta; hala ere, urteek aurrera egin ahala, itsas zabaleko nabigazioan ere trebatu ziren asko, eta garai modernoetako gerrateetan zeresan handia izan zuten horietako hainbatek ere. Horren erakusgarri da hiribilduaren armaria, non olatu batzuen gain, gaztelutxoak dituen XV. mendeko gerra-itsasontzi bat agertzen den; adituek diotenez, horixe da garaiko Placentiak Bizkaiko Jaunaren ontzidiari edo armadari egindako ekarpenaren adierazgarri.

Domingo Ochoa de Yturribalzaga Sertucha izan zen gerrara joandako plentziarretako bat. 1546an hiribilduan jaioa, inguruotako marinelik eskarmentuena zen, eta horrexegatik

izendatu zuten Itsas Armada Garaiezinako gerraontzi nagusiko, San Martineko, pilotu, 1588an. Amores Bilbao historiazealek jakin izan duenez, gerretatik salbu bueltatzea lortu zuen, eta «armadetako pilotu nagusi» kargua lortu zuen. «Pertsonai hori oso ezaguna izan da; testu-liburu askotan agertu da, baina inork ez zekien nongoa zen. Hala ere, nik baieztatu ahal izan dut bertokoa zela, eta Plentziako Eliz plazan zuela etxea», nabarmendu du ohoretsu Amores Bilbaok.

Baina Ochoa ez zen monarkia hispanikoa-ren alde borrokatu zuen plentziar bakarra izan. Historiazealek azaleratu duenez, bertoko marinela beste hainbat gatazkatan ibilitakoak dira; besteak beste, Tunezeko konkistan parte hartu zuten, 1535ean; Floridako itsas armadako kide izan ziren, 1566an; eta Bizkaiko itsas armadan jardun zuten, 1625ean, Brasileran joan eta Salvador de Bahia «askatzera». Amores Bilbaok zehaztu duenez, azken misio hartara Plentziako hiru itsas-gizon joan ziren; horietako bat: Ochoaren semea.

PIRATAK ETA KORTSARIOAK, PLENTZIAN. Jar-duera komertzial eta garaiko errege-erregina eta nobleekiko harreman horrek aberastasun nabarmena ekarri zuen hiribildura, baina baita piratak eta kortsarioak erakarri ere.

Pablo Amores Bilbaok zehaztu duenez, Bilboko Protokoloen Artxiboan itsaslapurren inguruko informazio zabala dago, XIX. mendera arte. «Ez dakit zergatik, baina denek zekiten hori hor zegoela, baina inork ez du ezer iker-tu horren inguruan, dirudienez». Iturri horretatik edateaz gainera, Plentziako eta Bizkaiko Foru Aldundiko artxiboetatik jaso du informazioa, baita Valladolideko Errege Kantzelaritzatik eta Simancaseko Artxibotik ere. Kontuak horrela, batutako informazio guztitik, Amores Bilbaok ondorioztatu du Plentziak iragan distiratsu bezain zalapartatsua izan duela.

Esan bezala, bertoko marinela kabo-tajejan adituak ziren, eta inguruko herrialdeetako merkantziak zekartzaten ontzien joan-etorriak handiak ziren hiribilduko itsasadarrean. Tamaina guztietako itsasontziak zetozen gurera, Butroe ibaian gora, gaur egun zubia dagoen inguruan porturatzerara, horixe baitzen garaiko portua. Hala ere, bidaiak ez ziren errazak izaten, baldintza meteorologikoei lapurreten arazoa gehitu behar baitziz-taion. «Piratak edo itsaslapurrak ohikoak ziren hemen; Billano uhartearen atzean ez-kutatzen zituzten ontziak, ingurutik pasatzen zen edozein itsasontziri eraso egiteko». Kontuak horrela, lapurreta horietatik babesteko, hiribilduak hainbat gotorleku izan zituen; nabarmenena da gaur egun Plentziako Itsas Es-



Plencia: una villa volcada al mar (siglos XIII-XVIII)

Ingeniari informatikoa da lanbidez Pablo Amores Bilbao plentziarra, baina bere udalerriaz gehiago jakitea da bere pasioa; emaitza, honako liburua.

tazioa (PIE) dagoen lekuan zegoena, Arriko Arritxu izeneko, hain zuzen ere. Horrek kanoi bi zituen XVII. mendean, baina lau izatera iritsi zen XVIII. mendean. «Dokumentatuta dago horrek tiro egin behar izan zuela behin baino gehiagotan piratak uxatzeko».

Itsas-lapur horietako asko kortsarioak ziren, monarkia baten edo bestearen alde horretarako baimena zutenak, alegia. Izan ere, Amores Bilbaok zehaztu duenez, gurean kortso-patenteak eman ziren Ingalaterra eta Frantziaren kontrako gerretan, besteak beste.

Historiazeale plentziarrak dokumentatu ahal izan duen lehenengo eraso 1477koa da. Horretan, Johan de Plasencia izenekoak Joan Beozart frantsesaren ontziari eraso egin zion. Urte batzuk geroago, 1544an, Plentziako Santiago Larrazabal eta Juan Diaz Ingles kortsarioek atzerriko ontzi banari lapurreta egin zioten, eta horietako bat Plentziako portuan

Plentziako hiribilduaren eta



enkantean ipini zuten. Modu berean, frantziar bat Plentzian porturatu zen harrapatutako ontzi bategaz eta bereagaz. «Atzitutakoa saltzen hasi zen hemen, baina Plentziako alkateak baimenak eskatu zizkionean salmentak legalak ziren edo ez ziurtatzeko, horrek, kortso-patentea ez zuenez, bere marinelek fusilak atera eta hondartzako gotorlekuak tiro egin zien; azkenean, ihes egitea lortu zuten, eta Bizkaiko jaurerria arduratu zen lapurtutakoaz, horrek baitzuen eskumena piraten gaian», azaldu du Amores Bilbaok.

Beste batean, 1798an, plentziar bat itsasoratzen ari zela, piratek hura eta bere ontzia harrapatu eta erreskatea exijitu zioten. Horretarako, zorigaitzokoak txalupa bat hartu, Plentzian lehorreratu eta dirua eskatu behar izan zion lagun bati, ondoren eskakizunak pagatu ahal izateko; «eta halaxe egin zuten. Erreskatea ordaindu ondoren, piratek

Urte askoko ikerketa-lana

«Afizioz egindako lana da hau, eta, denbora librean egin behar izan dudanez, 8-10 urte behar izan ditut hau guztia osatzeko»

Aleak non topa daitezke?

«100 ale argitaratu ditut, eta daborduko denak salduta daude. Hala ere, udal- eta foru-liburutegietara eramango dut baten bat ikusgai egoteko»

aske utzi, itsasontzia bueltatu eta, 24 orduko epean, itsas-protesta egin behar izan zuen notario baten aurrean».

LA FAMOSA PLENCIANA, KORTSARIOAK. Aipatutakoez gainera, atzerriko piraten erasoak etengabeak izan ziren Plentziako itsasadarrean. Hori dela eta, inguruak babestu guran, 1794an, hiribilduko auzokideek La Famosa Plenciana izeneko ontzia armatu zuten, kortsario gisa. «Ez dakit ontzi horrek erasorik egin zuen edo ez, baina dokumentatuta dago garai haietan Manuel Lanuz kapitain frantse-saren kortsario-ontzia harrapatu zutela inguruotan», zehaztu du plentziarrak.

JUAN DE PLASENCIA ETA ANTON DE GARAY. Frantziako koroagaz bake-akordiora heldu ondoren, Espainiako monarkiak kortsario izateko baimena kendu zien marinel askori. Horietako bat izan zen Juan de Arbolancha bilbotarra, ituna sinatu eta gutxira itsasontzi frantses bati eraso egiten harrapatu zutena; heriotzazigorra ezarri zioten. Plentziako Juan de Plasenciaren kasua antzekoa izan zela dio historiazaleak; «Horrek, kortsoan ibiltzeari utzi eta pirata gisa jardun zuen, beste hainbat itsasontziri lapurreta egiten. Halako batean, bretoi bati eraso egin zion, eta Espainiako agintariak bera bilatzeari ekin zioten. Ondorioz, Bartzelona aldera joan zen, Mediterraneora, eta bertan jarraitu zuen piraterian, hura bilatzeko eta harrapatzeko agindua zegoen arren».

Amores Bilbaok jakin ahal izan duenez, pirata horrek alaba bat izan zuen, Marina izenekoa, eta Gorkizen bizi zen Anton de Garay izeneko gazte bategaz ezkondu zen. Horrek gabarra bat erosi zuen Coruñan (Galizia), eta kostaldean topatzen zuen edonori eraso egiten hasi zitzaion. Lehenengo biktima La Piedad izeneko barku bretoia izan zen, baina ez ziren gutxi izan horren ondotik etorri zirenak, hura atxilo eta Coruñako Don Pedro de Lujan korrejidoreak heriotzazigorra ezarri zion arte.

INGURUKO PATRIMONIOA, BALIOAN. Plentziako itsasgizonen eta piraten inguruko historia kontatzeaz gainera, Pablo Amores Bilbao egileak beste hainbat gai jorratu ditu bere azkenengo liburuan, hala nola hiribilduko patrimonioa. Besteak beste, nabarmendu duenez, Bizkaiko eraikin zibil zaharrena du Plentziak, 1562koa, gaur egun Plasencia de Butron museoa hartzen duena. «Dorretxea Plentziako Martin Perez bikarioak utzitako diruagaz egin zuten, eta garia gordetzeko alondegi gisa erabili zen hasiera batean; gerora bestelako erabilera batzuk eman zaizkio eraikin horri, hala nola udaletxea eta espetxea». ◀

inguruko elizateen mapa, 1755 urtekoa. © MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTES - ARCHIVOS ESTATALES



Getxo Ingurumena**Azkorriko natura-gunea babesteko borondate falta salatu dute**

Getxoko Azkorri inguruak autoz betetako irudiak ikusi ahal izan dira udan, behin baino gehiagotan. Autopilaketak egon dira bertan, eta ibilgailuak aparkatuta egon dira nonahi, berdeguneak eta natura-guneak errespetatu barik. Egoera horren aurrean, oposizioko taldeek hainbat proposamen egin zituzten iraileko osoko bilkuran. PPK berdegune horretan 100 plazako aparkaleku berri bat egitea eskatu zuen; EH Bilduk, Elkarrekin Podemosen zuzenketaategaz, aldiz, ingurune natural horiek babesteko hainbat proposamen egin zituen, Azkorri Bizirik taldeak eskatutakoak bat eginez, besteak beste. Udal-gobernuak (EA) eta PSE), baina, ez ditu begi onez ikusi. ◀

Getxo Ondarea**Portu Zaharreko eskulturak aldatuko dituzte**

Portu Zaharreko arrantzalearen eskultura Luis María Iñiguez Paillolerena da (Getxo, 1935-1995), eta sardina-saltzailea, berriz, José Luis F. Butronena (Bilbo, 1933). Lehenengoak kalte handiak ditu, bai buruan baita ezkerreko besoan eta arraunetan ere, horien zati handienak galdu baititu. Udalak jakinarazi duenez, gaur egungo eskulturak hormigoizkoak dira, eta errez kaltetu daitezke denboragaz. Hori dela eta, jarriko dituztenak altzairu urtuaz egiteko erabakia hartu dute. ◀

Getxo Udalbatzaren erabakiak**OHZ % 2,9 handitu eta TAO Ereagara zabalduko du Udalak**

Iraileko osoko bilkuran, oposizioko talde guztien kontrako botoakaz, 2022rako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) % 2,9 areagotzea erabaki zuten, Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) arabera eguneratzearen ondorio gisa.

EAjren eta PSE-EEren aldeko botoak eta PPren, EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen aurkakoak jaso ostean, iraileko ohiko osoko bilkuran onetsi egin zen 2022rako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) % 2,9 areagotzea, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) arabera eguneratzearen ondorio gisa. Ogasun zinegotzi Ignacio Uriartek gogoratu zuenez, «inflazioak, KPI igotzeak, udal kudeaketako ohiko kostuak areagotuko ditu. Hori dela eta, udal tasak eta zergak eguneratzea komeni da. Gure kasuan, OHZ-ra mugatzea proposatzen dugu; hala, gainerako zergei ez die eragingo eguneraketak honek».

Oposizioko hiru alderdiek uste dute ez dela OHZ igotzeko unerik onena, ez eta modurik egokiena ere, aintzat hartuta krisi ekonomikoa. Ez dute begi onez ikusten pandemiatik eratorritako egoerak kalte-tutako herritarrak eta merkatariak zergapetzea. Horrez gain, uste dute

Udalaren finantza-egoerak ahalbidetzen duela OHZ ez igotzea. Horren aurrean, baina, udal-gobernuak azpimarratu du zerga KPIra egokitzeko «ohiko eguneratzea» baino ez dela, «diru-sarrera eta gastu arruntak orekatzeko gomendagarria, eta ez duela eskatzen aurretiaz jendaurrean jartzeko izapidea ere».

TAO-A EREAGA INGURUAN. Osoko bilkuran, gainera, Udalbatzak onetsi zuen TAO zerbitzuaren kontratuaren adjudikazioa, hurrengo 4 urteetarako –Udalari ordaindu beharrekoa urtean 305.116 euroko kanonagaz–, eta jabari publikoa okupatzeagatiko tasa arautzen duen ordenantza aldaketa, datorren udatik aurrera indarrean jarriko den Ereaga gunerikotarako TAO tarifak finkatze aldera.

PPk hiru zuzenketa aurkeztu zituen egoiliar txartelaren truke ordaindu ez dadin, eta % 100 murriztu dadin ibilgailu elektrikoaren tarifa, baita % 90 murriztu dadin isunik jaso ez dutenen kasuan. Horiek guztiak baztertu egin zituzten. ◀

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

JUAN MARI
Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua
Las Mercedes, 31, 48930 AREETA
94 464 41 25

Berango Maila guztietako atletek parte hartuko dute kirol-proban

Berangoko Nazioarteko Milia bueltan da, 33. edizioan

Pandemiaren ondorioz bertan behera geratu ondoren, bueltan da Berangoko Nazioarteko Milia, espainiar Estatuko miliarik onena, hain zuzen ere.

Urriaren 9an, zapatuan, egingo dute Berangoko Nazioarteko Miliaren 33. edizioa. Iaz, COVID-19aren ondorioz, bertan behera geratu zen atletismoaren festa, baina bost urtez Espainiako Estatuko hiri-probarik onena izendatu duten Milia bueltan da. Guztira, hainbat kategoriatan banatutako 18 proba antolatu dituzte lasterketa osatzen duten 1.609,344 metroko distantzian lehiatzeko. Bertan, lehen mailako atletakaz batera, adin eta maila guztietako lasterkariak elkartuko dira, paralinpikoak barne.

Aurreko urtean, pandemiaren ondorioz, eliteko probak bakarrik lehiatzeko aukera izan bazuten ere, hautabide hori baztertu zuten; izan ere, Josu Hernandez Berango Atletismo Taldeko presidentek aitortu zuenez, «harrobiaren parte-hartzerik gabe Milia antolatzeak ez dauka zentzurik». Bestalde, nabarmendu du ekitaldia antolatzeak aparteko motibazioa eragiten duela taldekideen artean, eta, erantsi duenez, «horregaz, oinarritzko kirola sustatzen saiatzen gara, eta gure udalerria elitezko atletak hurbiltzea lortu ere».

Lasterketaren aurkezpenean, Anabel Landa Berangoko alkateak herritarrek frogari ematen dioten babesa goraipatu zuen, eta sei garren urtez Estatuko Miliarik onena izateko erronka dutela iragarri zuen.

Hurrengo Milian honetan parte hartuko duten asko lehen mailako lasterkariak dira, eta, horietatik, batek baino gehiagok lehiatu da aurtengo Tokioko Olinpiar Jokoetan. Horietaz gain, Berango Atletismo Taldeko ehun bat eskola-atletek eta 80 federatuk parte hartuko dute, beste askoren artean.

Lehen probak urriaren 9ko 16:10etan hasiko dira, 12 urtez azpikoen lasterketakaz. Ondoren, adinaren arabera jarraituko dute lasterketek, eta azkenak paralinpikoak, elite emakumezkoak eta elite gizonezkoak izango dira, bata bestearen atzetik. ◀



Eliteko emakumezkoen lasterketaren amaiera azken Milian. BERANGO ATLETISMO TALDEA

H A M E K O
B E R B E
I K I S I
G U R E
D O G U

BIZKAIERA ikastaroa
2021eko URRIAREN 19tik 2022ko MARTXOAREN 3ra
MARTITZEN ETA EGUNETAN

Ordua: 18:30etik 20:30era, 60 ordu guztira
Non: **Algortako Lavaxeta AEK Euskaltegian** (Iparbide kalea 6, Algorta)

Prezioa: Bizarra Lepoan Euskara elkarteak 125 euro eta elkarteak 175 euro

Eskolak aurretik aurre emango dira, ikasleak maskara jantzita izango du gelan eta distantzia mantenduko da ikasleen artean.

Izena emateko: labur.eus/Bizkaiera2021 edo idatzi info@bizarralepoan.eus helbidera
Informazio gehiago: www.bizarralepoan.eus / 94 491 03 87

antolatzaileak:  **ae**
babesleak: 

Erandio Rock jaialdia**Gasolino Rock&Ria jaialdiaren lehen edizioa egingo dute**

Erandioko Auzokideok elkarteak Gasolino Rock&Ria musika-jaialdia aurkeztu du. Urriaren 9an, zapatuan, egingo duten jaialdia herri-ekimenari esker ospatuko dute, eta erandioztarrak mobilizatzea eta bestelako aukera kulturala eskaintzeko helburua dauka.

Azpiarratu dutenez, herri-mugimenduan oinarritutako jaialdia izango da. Hala, Erandioko Auzokideok elkartearen, Gasolinoko Boteros La Ria enpresaren eta udalerriko musika-taldeen eskuzabaltasunari eta parte-hartzeari esker antolatzen ari dira jaialdia.

Besteak beste, El Tren de la Bruja, Turbofuckers, Lion Heart, Ectoplasmas eta Bandidos taldeen kontzertuez gozatzeko aukera egongo da urriaren 9an, 18:00etatik aurrera. Gainera, emanaldiak itsasadarreko uretatik ikusteko aukera ere eskainiko dute gasolinotik. Bestalde, ekitaldia laguntzeko zozketak eta kamisetak ere salduko dituztela jakinarazi dute. Azaldu dutenez, ekimen horrek bilatzen du gasolino Erandioko kultur jardueretarako plataforma gisa proposatzea; izan ere, hainbat motatako aukerak eskaintzen dituela nabarmendu dute. «Ekitaldian gure gasolinari eustea aldarrikatuko dugu, eta uste osoa daukagu ekitaldiak Ondare Historiko gisa mantentzeko eta kontserbatzeko borrokari lagunduko diola, plataforma kultural eta musikal gisa erabiltzeko aukera horiek irekiz», azaldu dute jaialdiko antolatzaileek.

Etorkizunerako, Erandioko Rap eta Hip Hop doinuak batuko dituen Gasolino Rap&Ria jaialdia ere antolatzeko aukera ikertzen ari direla jakinarazi dute antolatzaileek. ◀

Leioa 2023an hasiko dituzte lanak**Aldundiak 60 milioi euro bideratuko ditu Avanzada estaltzeko**

Unai Rementeria Ahaldu Nagusiak egindako iragarpenak erantzun kontrajarriak sortu ditu herriko alderdi politiko eta elkarten artean; zehaztasun eza eta erdibideko konponbide bat dela gaitzetsi dute batzuek.

Leioako erdigunea banatzen duen Avanzada edo BI-637 errepidea estaltzeko proiektua esleitu dute 2022an, eta lanak 2023an hasi aurreikusi du Foru Aldundiak. Unai Rementeria Ahaldu Nagusiak irailaren 29ko Politika Orokorreko bilkuran azaldu zuen eskaera historiko horri konponbidea emango diotela. Horretarako, Leioako erdigunea banatzen duen lubakia estali eta «personon gozamenarako gune berri bat» sortuko dutela iragarri zuen. Horretarako aurrekontua 60 milioi eurokoa izango dela ere jakinarazi zuen Rementeriak.

Hainbat urtez itxarondako iragarpena izan arren, berriak iritzi kontrajarri asko sortu ditu. Alde batetik, erabakiagaz pozik azaldu direnak daude, besteak beste, Iban Rodríguez Leioako alkateak «gertakari historikoa» dela adierazi du. Leioa Martxan elkarteak ere positibotzat jo du erabakia, batez ere, oraingoan, 60 milioi euroko partida bideratu dutelako horretarako.

Beste alde batetik, irailaren 30eko Leioako Udalaren osoko bilkuran, Asier Izquierdo EH Bilduko ordezkariak gaitzetsi zuen ez dagoela «proiektu argi bat, ezta hitzemandako aurrekonturik ere», eta egin gura zituzten obren «definizio eza», leporatu zion Aldundiari.

Elkarrekin Leioako Luis Miguel Peñak, bere aldetik, udal-gobernari (EAJ-PSE) egotzi dio planari buruzko informazio nahikorik ez izatea, eta proiektuaren berri prentsaren bidez jakin behar izatea.

ESTALI ALA LURPERATU. Udaberrian, Avanzadako lanetan irteera ez ezabatzea lortu zuen auzo-mugimenduak adierazi du ez direla erdi-bideko konponbideakaz konformatuko, eta errepidea guztiz lurperatzea exijituko dutela adierazi dute: «Ez dugu irtenbide partzialik nahi». Horretarako, batzar informatiboa egiteko deialdia zabaldu dute sare sozialetatik; urriaren 14an, egunean, 19:00etan, Boulevardean elkartuko dira. ◀

AINGARA

BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

☎ 944 038 953

🌐 www.bordadosaingara.com

📍 Aurrezki Kutxa, 18 48930 Erromo · GETXO

✂ **Ebaki bonu hau eta %10eko deskontua izango duzu gure produktuetan***

*bordatuak eskaintzatik kanpo
*bonua ebaki eta dendan aurkeztu

Plentzia Udalbatzaren aldaketa

EH Bilduko zinegotziek, planto

Plentziako EH Bilduko zinegotziak ez ziren irailaren 30eko osoko bilkurara joan. Azaldu dutenez, erabaki hori hartu dute gobernu-taldeak (EAJ) udalbatzak goizeko ordutegira pasatu dituelako. Bideo batean salatu dutenez, Udalak 23 urte daroatza udalbatzarrak arrastietan egiten, eta legealdiaren erdian erabaki hori hartzeko arrazoia hurrengo hau dela azpimarratu dute: «Herriarrek parte hartzeko aukera izan ez dezaten, eta liberatuta ez dauden zinegotziek bertaratzeko trabak izan ditzaten». Aldiz, erabaki hori hartzeko, udal-

gobernuak argudiatu du bilkurak goizez egiten badituzte udal-teknikariak horietan parte hartzeko aukera izango luketela. EH Bilduko ordezkariak, baina, jakinarazi dute udal-teknikarien kontratuan arrastian bertaratzeko aukera aurreikusita dagoela eta, azaldu dutenez, «udal-idazkariak berak argi utzi zuen ez zeukala inolako arazorik bi hilabeterik behin arratsaldeetako bilkuretar joateko». Horrenbestez, gaitzetsi dute erabaki horren arrazoi bakarra dela «herriarren bertaratzeara eragozteko eta oposizioko zinegotzien lana oztopatzeko». ◀

Gorliz Udal-aurrekontuak

Partaidetzazko aurrekontuak osatzeko epea, martxan

Urriaren 5etik 18ra bitartean, Gorliz-en erroldatutako 16 urtetik gorakoek euren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, 2022ko udal-aurrekontuetan horiek txerta ditzaten. Ardura-dunek azaldu dutenez, parte-hartzeko bost gai-eremu egongo dira: gizarte-ongizatea eta adinekoak; hiri-ingurunea eta mugikortasun jasangarria; kultura eta kirola; gazteak eta haurrak; eta sustapen ekonomikoa. Aintzat hartuko diren proposamen guztiak gauzatzeko 50.000 euro bideratuko ditu Udalak, joan den irailaren 28ko dekretuaren bidez zehaztu dutenaren arabera. Behin proposamenak eginda, horiek aztertu, definitu eta bozkatu egingo dituzte, zehazteko dauden egunetan. ◀

Lemoiz Ikastaroak

Ikasturte honetarako tailerretan izena emateko epea, zabalik

Yoga, pilates, jostura tailerra, batukada, hipopresiboak, trikitia, tai xi, pintura eta patinaje tailerrak antolatu ditu Lemoizko Udalak hasi berria den 2021-2022 ikasturterako. Ikastaro bakoitzak bere ordutegi propioa du, udal-webgunean daborduko ikusgai dagoena. Hala, interesa dutenek, horiek begiratu eta gehien interesatzen zaizkion saioetakoren batean izena emateko aukera dute daborduko. Izan ere, Udalak jakinarazi duenez, izena eman daiteke kultur etxean, astelehenetik barikura, 16:30etik 20:00etara. ◀



Ari Du Elkartasun Eguna, Gorlizen.

Pandemia garaian sortutako Ari Du Elkartasun Sareak herriko eragile izaten jarraitu gura du. Horregatik, eta herriko plazak jardueraz betetzeko asmoz, Ari Du Elkartasun Eguna egin zuten irailaren 25ean.



%30 EKO

DESKONTUA BETAURREKO GUZTIETAN

30% dto. en todas las gafas graduadas

Consultatu baldintzak denda / Consulta condiciones en tienda



Campus de Bizkaia UPV/EHU planta baja
Edif. Facultad Ciencias Sociales y de la Comunicación
LEIOA T. 946 05 16 30

Mayor, 10 (Las Arenas)
GETXO
T. 944 80 10 17

Telletxe, 7
GETXO
T. 944 60 13 90

Euskarari, atera kontuk! Joanes Atxa Olaiz

Zahar hitz, zuhur hitz

Hizkuntzak bezala, hizkerak ere belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira. Hainbat ezaugarrik urteetan zehar aldaketak jasan dituzten bezala, beste batzuek mugiezin irauten dute. Garrantzitsua al da katea mantentzea halako kasuetan?

Beti esan izan didate inguruko adinekoengandik ahalik eta gehien ikasi behar dudala, gehiago omen baitzekien deabruak zaharra izanagatik, deabru izanagatik baino. Esamolde pisutsu horren oihartzuna kolkoan, Barrikako Goierri auzoan hazi eta hezitako Lartategi ahizpak ezagutzera joan nintzen. Frantziar Estatuak Monako duen bezala, Uribe Kostako Barrika udalerrian Goierri dugu: berezko izaera duen paradisua.

Auzo horretako Goikos baserrian jaio ziren Lartategi ahizpak, eta baserrian, edozeinentzako zegoen lana. Garai hartan, etxeko txikienak ziren horiei ere, hamaika zeregin erakusten zizkieten. Hori bakarrik ez, hizkuntzak ere transmisio-katea izan zuen baserri hartan. Etxeko txikienak ziren horiek etxeko nagusienak bihurtu dira jada, eta Lartategi ahizpek hizkuntza irakasteaz gainera, hizkera ere irakatsi diete seme-alabei. Seme-alabek bilobei, eta bilobek ere herri-hizkera transmititu dezaten ahalegina egin dute. Goierriko hizkera, Uribe Kostako hizkera, hain zuzen ere.

Haiekin berbetan nengoela, zera entzun nien bat-batean: «**auki iseten gendusen ollok, baia luki etorten basan...**» Arreta osoa jarri



Lartategi anai-arrebak baserrian, euren amamarekin batera. © Lartategi familia

nuen esaldi horretan; hara non, Barrikako hizkera eta horren transmisio-katea esaldi berean!

Barrikako hizkeraren bereizgarri nagusienetakoa *auki* hitzean edo berban ikus dezakegu. Uribe Kosta osoan, *-eu-* > *-au-* bihurtzeko joera dago, eta hemendik dator ikusi dugun *eduki* aditzaren forma berezi hori. Berdin-berdin gertatzen da bokal multzo hori duten beste hainbat hitzekin; besteak beste, euskara bera izendatzeko *auskera* forma erabili izan da Uribe Kostan.

Eta hizkeraren transmisioari buruz zer esan? Bada, *luki* hitza Bizkaia mendebaldean erabiltzen den berba dela, baserrietako oiloak harrapatu eta abeltzainak haserretzen dituen animalari deitzeko; bai, azeria izendatzeko, hain zuzen ere. Ezinezkoa dugu jakitea noiztik deitu izan diogun azeriari horrela, baina XVI. mendeko testuetan jada agertzen den hitza da hori.

Seiehun urte daramatzagu, gutxienez, belaunaldiz belaunaldi, baserriko oiloak babestu nahian, azeriari *luki* deitzen. Hala, mendeetan zehar sortutako kateari tinko eutsi diote Lartategi ahizpek, datozen mendeetan etorriko diren txita guztiak babestuz, ez ditzan *lukik* jan! ◀

ANDER DEVNA
IKASTOLA

Hezkuntza eraldatzen

Gatzarriñe, 47. 48600 SOPELA | 946 76 02 66 | info@anderdeuna.eus

www.anderdeunaikastola.eus

ikastoleneikartea

Zinemaz bizi Iñigo Esteban Lezkano

Zinea, eta euskalduna

Euskal Herriko zinematik une garrantzitsua du orain. Ez da mundu mailan kontuan hartzeko industria erraldoia, baina bai hemen jaiotako proiektuak segitzeko modukoa. Berton, maila handiko zinea egiteko gai gara, harrotasunez aurkeztu eta arrakastaz esportatzen dena.

Azken urteetan, euskal zinearen ospea gorantza egin du bertoko zinegileei esker. Adibide bat da Paul Urkijo zuzendaria eta bere lantaldea, *Errementari* filmarekin lortu baitzuten harrera ezin hobia. Orain, gogotsu espero dugu euren azken proiektua: filmatzen ari diren *Irati*, abentura-film bat Itziar Ituño eta Eneko Sagardoy aktoreekin. Aitor Arregi eta Jon Garaño zuzendarien kasua aipagarria da baita ere, duela lau urte *Handia* filmarekin oso kritika onak lortzeaz gainera, hainbat sari lortu zituzten-eta. Jon Garañoek bazekien zer zen arreta guztiak erakartzea, 2014an Jose Mari Goenagarekin zuzendu zuen *Loreak* film borobilak lortu baitzituen proposamen eta kritika aipagarriak.

Hemen sortzen diren filmak gure izaera eta kultura irudikatzen dute nolabait, gure herrialdean zinea egiteko zailtasuna nabaria bada ere, bertoko zuzendarien, ekoizleen, aktoreen, makillatzaile, estilista, ile-apaintzaile eta beste hainbat langileren talentua, ahaleginak eta behin eta berriz saiatzeak euskal zinematik gure mugetatik kanpo hitz egitea eragin dute, besteak beste.

Arraroa eta zaila izan da azken urte eta erdia guztiontzako; bizitza asko aldatu da, eta arlo guztietan joan beharko da mugimendu

Garrantzitsua da gure kulturaren zati bat denari, zinemari, balioa ematen jarraitzea; izan ere, hemen dugun mundua ikusteko modu bat erakusten du, irudietan eta soinuan, baina sentimenduak ere transmititzen dituen.

normalera bueltatzen, baina hausnarketa sakona egiteko momentu aparta izan daiteke baita ere. Zineak duen lekua, laguntzak eta babesa, beste kultura-arlo guztiekin batera, bultzada txiki bat merezi du; hainbat eta hainbat pertsona ikaragarritzko talentuarekin ditugu gure artean, eta helburua izan behar da euren garapena lantzea baliabide guztiak ziurtatuz.

Interesgarria izango litzateke hemen sortzen diren film, film labur eta dokumental ezezagun eta interesgarri asko kontuan hartzea eta bultzatzea. Film horiek ez dira publiko orokorrera zabaltzen, baina, zalantzarik gabe, ekoizpen eta banaketa baliabide handiagoekin egingo lukete. Zinemaldiaz aparte, badaude zine-jaialdi asko kontuan hartzeko, adibidez Zinebi edo Zinemakumeak, behar bada izenez ezagunak baina jarraitzaile gehiago merezi dutenak. Laguntza eta babes gehiagorekin, segur aski, ez genukeen behar izango atzerrira hainbeste begiratzea, askotan hemengo mailakoa edo hobia da-eta.

Garrantzitsua da gure kulturaren zati bat denari, zinemari, balioa ematen jarraitzea; izan ere, hemen dugun mundua ikusteko modu bat erakusten du horrek, irudietan eta soinuan, baina sentimenduak ere transmititzen dituen. ◀



SAN NIKOLAS IKASTOLA

SANIKOLAS.EUS

San Nikolas IKASTOLA

Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia



Begia eta bisturia Ina Gastaka Eguskiza

Aretoa eta egongela, nor baino nor gehiago

Zer da zinema? Erantzuna ez da erraza. Fisikaren ikuspegitik zinema irudi batzuk beste batzuen atzetik jartzea da; segundoko 24 fotograma proiektatuz, ikusleengan dinamismoaren sentsazioa lortzen da. Hori zuzena izan arren, sinpleegia ere bada. Gai honen gainazala arraskatuko dugu, ea.

Iaz, Steven Spielberg zuzendaria Netflix, HBO edo Amazon Prime plataformen kontra aritu zen. Azpiegitura digital horiek agertu zirenetik, ikusleriaren kontsumo-ohiturak erabat eraldatu dira. Egun, nork bere programazioa antola dezake, eta film bat telebistan ikusteko, ez da itxaron behar hura emititu arte. Orain, kontsumitzaileok daukagu kontrola. Halaber, banaketa digitaleko plataformen eskutik etorritako iraultzak beste ondorio bat ekarri du: pelikulak zinema-aretoetan estreinatu beharrean, etxe-ko telebistetan ikusten ditugu lehen aldiz.

2019ko Oscar sarietan, Alfonso Cuarón-en *Roma* obrak jaso zuen film hoberenaren estatutaxoa. Spielberg jaunak, beste batzuen artean, sarien banaketa horren kontra jardun zuen. Ez zuten pelikularen maila edo kalitatea zalantzan jartzen. Eztabaida bestelakoa zen, eta berak azaldu zuenez, «zinemaren benetako esperientzia areto erraldoi eta ilun batean gauzatzen da», eta ez norbere etxeko egongelan, pantaila txikitxo bat aurrean dugu la edo telefonoari noizbehinka begira, behin eta berriro haria galduz; horiek etxeko filmen ezaugarriak dira, eta euren ekitaldiak dituzte, Grammy sariak, hain zuzen ere. Netflixek erantzun zion plataforma berriek aukera ema-



Askotan, plataformetako film horiek ezin hobeak izaten dira, benetan onak, bai hizkuntza zinematografikoaren aldetik, bai ekoizpenaren aldetik, baita aktoreen interpretazioaren aldetik ere. Esan genezake, zazpigarren artearen eredu eta adibide izan daitezkeen obrak egiten dituztela. Hain dira ederrak, hain maisu-lan bikainak, non sariak ere jasotzen dituzten. Hala eta guztiz ere, arazo bat dute: horiek ez direla zinema-obratzat hartzen, ez direlako estreinatu zinema-aretoetan.

ten dietela ikusle guztiei estreinaldiez gozatze-ko, hartara, nolabaiteko demokratizazio zinematografikoa aldarrikatuz.

Bada, plataformek ekarritako eta aintzat hartu beharreko beste ondorio bat, artearekin zerikusirik ez duena, baina horrek adinako garrantzia (edo handiagoa) daukana, eta zinemaren biziraupena baldintzatzen duena hurrengoa da: bideragarritasun ekonomikoa. Azpiegitura digitalek berez ahula den sektorea suntsitzea ekar lezakete, pelikula guztiak plataformetan estreinatuko balira, jendeak zinemara joateari utziko liokeelako.

Iritziak iritzi, aldarrikatu nahi dut «zinema» pantaila handietan proiektatzen diren filmak direla. Aretoak beste mundu batera garraiatzen gaituzten tenpluak dira, eta pantaila handiak, dimentsio alternatibo horien leihoak. Etxeko telebistek ez dute horrelakorik eskaintzen. Halere, soluzioak egon badaude: batetik, Oscar sariak kategorია berri bat sor lezakete plataformetako pelikulentzat; edo, bestetik, Netflixeko ekoizpenak zinema-aretoetan proiektatzeko akordioa erdiets liteke. Izan serieak, izan filmak, horien edertasuna pantaila handietan ikusteak esperientzia zinematografikoa areagotuko luke eta, nik, guk, guztiok, ikusle garen aldetik, eskertu egingo genuke. ◀

BETIKO IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84. (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.





Barneratutakoa askatzen Ainhoa Ortells

Irudimenaren uda izan da berriz ere. Mekagüentxotx

-Egunon! 🍌
-Egunon! Zelan? Oraindik ez da hasi ez?
-Ez, baina beitu zelako hilerak dagoeneko.
-Denbora generaman honen zain, normal.
-Nik pinturilla batzuk ekarri ditut, egingo dugu plan alternatiborik?
-🍌

-Herri erdia lotu zaigu 😊
-Bo, horretarako ekarri ditut.
-Baziren bai herri kulturaz disfrutatzeke gogoak, eh...?

-Bi garagardo, txakolina eta Coca-cola, ezta?
-Bai.
-...
-Coca-cola normala, zero, edo zer?
-Normala.
-Birrak bebai normalak mese 🍌

-Amaaaaa! Joan gaitezke txutxeak erostera? 🍌 Mese... amatxutxu... 🍌
-Mese, mese, mese...! 🍌🍌

«Maite zaitut, maite-maite zaitut!» 🎵
-Joan gaitezke plazara dantzatzera?!?
-Ondo; hori bai, hurbil ibili mese, mese, mese...

-Niri ere dantzatzeko gogoak sartu zaiz-

kit, eh... Luzeegi egiten ari da hau dena.
-...
-Gaur, guk «servicio amama&aitaita» dugu (yuhu! Eta «qué peligro» aldi berrean 😊😊)
-Guk bihar!
-Neu gaur lagunekin noa bakarrik jijiji 🍌
-Ala!! Suertuda!
-Ikusiko dugu elkar gero orduan, potea eskuartearen eta besteez ahaztuta karkar 😊
-Bai! 🍌🍌🍌

«Flying free!!!! Taratatara!!!! Feel the extasis!!!!» 🎵
-Ala!!!!
-Goizegi ez al da abesti honetarako...? jaja-ja Cubata bat eskatu beharko dut jada? 😊
-Karkarkar.
-Ni antzera sentitu naiz 🍌🍌

-Ehhh... ez dela hain goiz! 🍌 14:45ak dira. Bueno, zer, hoberen gaur bazkalitzeko pintxoak edo txosnatik zerbait hartzea, ezta?
-Perfect.
-Bai bai Nammm.

-Beitu zein datorren hortik, amama! 🍌
-Amamaaaaaaaa! Eta aitaiaaaaa!!
-Jeta... 😊
-Bai bai, dutxita bat hartuko dut, eta gero nire jaiak hasiko dira! 🍌

-Kaixo neskak! Gaur juerguita!!! 🍌🍌🍌
-🍌
-Zelan goiza txikerrekin?
-Primeran, ezin zuten sinistu berriro halako planik egiterik zegoenik. Denetarik egin dute: korrika, salto, dantza, margotu (euren buruak ere bai), lagunartearen egun osoan jolastu, herriartearen. Gozada bat 💜 Baina orain B parte, eh.. amatxuna 😊

-Bote ipiniko dugu, edo errondaka? Gu ez gara berandu arte geratuko gaur.
-Eeehh.. nik uste gaur luze iraungo dudala je.
-Nik be jje.
-Egingo dugu hasteko botetxu bat eta gero «cada cual a lo suyo»?
-Ondo.
-🍌

-Ene, beitu zein dagoen hor! Menganito!
-Buah, urteak bera ikusi barik!
Agurtzera noa!

-Aspaldiko!!!!
-Ene! Menganita! Zenbat ez dugula elkar ikusten. Zelan bizi?
-Blahblah blahblahblahblah blahblah
-Blah blahblahblh blah blah blah
-...

EZ-JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina - ALGORTA

944 307 696

GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindogia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500


Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



Arte eszenikoen erdigunea Uribe Kostan dago

Antzerkia, dantza, umorea eta beste hainbat motatako ikuskizun harrigarriak bete dira egunotan gure kaleak. Hainbat hilabetez itxaroten egon ondoren, kulturak eta jendeak bere eremu naturala berreskuratu dute: kalea. Orriotan, irailean, Leioan eta Plentzian egindako Umore Azoka eta Artekale kaleko arte eszenikoen jaialdiko irudiak dakarzkizuegu. Eskualdeko kultur eskaintza zabalaren adierazgarri bi besterik ez dira, baina horietaz gozatzen jarraitzeko sektorea ere zaindu beharra daukagu.











Lehen/Orain **Arrigunaga, 1923**



ITURRIA: GETXOKO LIBURUTEGIAK ETA TXEMA GARCÍA

Urubitakora



TESTUA
Galder Bilbao
Txapi

DOINUA
*Ume koxkor bat;
Lide ez, Hodei
bez.*

ARGAZKIA
Hodei Torres

Portu Zaharreko bikotea

*Murgildu egingo gara historian
oroitzapenei dale;
lur ta itsaso jardueretan
ez gara izan eskale,
hainbat soro erein ta landuz
baita arrantzatu bale.
Badaukagu txoko berezi bat
gertatuz hor hainbat ale;
Portu Zaharreko ogibide zen
sardinera eta arrantzale.*

*Gaur dena da ordenadorea
beti larri ta berandu,
garai berrietara moldatzea
saiatu eta ahalegindu.
Bizitza oso gogorra zela
bertakoek dute akordu,
abiadura handiko bizitzan
bertakoak gidatu ezin du,
nahiz ta besoa ta arrauna falta
nortasuna ezin kendu.*

*Izan zirelako izango gara
gure arbasoak biba!
eurek utzitako hondareatik
beharko genuke tira,
baliza egokia hartuta
ziaboga egin eta bira,
begi bat beti gure gainean
zaindari ta adi ari da;
talaian mendeak pasa dira
itsasoari begira.*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

**MEDIKU-TALDEA**IÑAKI MARTIN **dk.**
Erradiologo interbentzionistaRICARDO ITUARTE **dk.**
Erradiologo interbentzionistaRICARDO RINCÓN **dk.**
KirurgialariaRAQUEL LAMBEA **dk.**
Zain barneko laserrean 10 urteko gorako
esperimentzia duen medikoaJOSE AZPIAZU **dk.**
Zain barneko laserrean 10 urteko gorako
esperimentzia duen medikoa

P.S.E. 92/21

Zain barneko laserra: desagerrarazi zure barizeak berme guztiekin Dermitek-en

Tratatutako barizeen % 99,6 ez dira berriz ateratzen: horiek dira Dermitek klinikak lortutako emaitzak barizeak zain barneko laserrekin tratatzean. Hori dela eta, Dermitek-ek berme bat eskaintzen du: urtebeteren buruan barize bera ateratzen bazaizu, tratamendua errepikatuko dizu, doan.

Dermitek klinikak 2010. urteaz gozotik tratatzen ditu barize lodiak zain barneko laserrekin. Tratamendu hori saio bakar batean egiten da, eta ordubete inguru irauten du. Bukatzean, pazienteak barizerik gabe oinez irteten da Dermitek-etik, eta bulto antiestetikorik edo sintomarik gabe.

Zain barneko laserra da nazioarte-mailan sarrien hautatzen den tratamendua (Gold Standard). Horrek esan nahi du AEBetako eta Europako zientzia-erakunde nagusiek beste batzuen aurretik gomendatzen dutela hori, hala nola safenektomia (kirurgia tradizionala), N Butil zianoakrilatoa (itsasgarria) edo esklerosia aparrarekin.

Hauetako lehentasun horren arrazoiak: zain barneko laserrak barizeak berriro ateratzeko tasa txikiagoa du; arrisku gutxia

go dakartza, ebaketarik behar ez duelako eta anestesia lokalarekin egiten delako; eragozpen gutxiago eragiten ditu tratamenduaren ostean; eta pazienteak berehala itzul daiteke bere ohiko bizitzara

ZEINTZUK AUKERA DAUDE? Zain barneko laserraz gain, klinikak beste tratamendu hauek ere eskaintzen ditu: N Butil zianoakrilatoa (itsasgarri gisa ezagutzen dena) edo ekografia bidez gidatutako esklerosia aparrarekin. Denak ez dira berdinak eta beharrezkoak ere desberdinak izan daitezke.

Iraganeko, kirurgia tradizionala jaso duten pazienteen kasuan edo laserrekin tratatu ezin diren oso zain bihurriak dituzten kasuan, ekografia bidez gidatutako aparra erabiltzen duen tratamendua da aukerarik egokiena.

N Butil zianoakrilatoa aukera egokia da pertsona gazteentzat, barize gutxi dituztenentzat edo orratzei beldurra dietenentzat. Tratamendu honek hainbat azterlanen bermea jaso du eta emaitza onak eman ditu bost urtera, baina oraindik ez da lehentasunezko tratamendutzat jotzen.

Zergatik aukeratu zain barneko laserra?



1. Azkarra: ordubeteko saio batean bakarrik, kirurgiari gabe eta anestesia lokalarekin.



2. Eraginkorra: birgaixotze-tasa % 0,4koa da tratamendua egin eta urtebete igarota. Hala ere, ebakuntza-gelan ebakitako barizeen % 20k eta aparrarekin tratatutako % 40k arazoak sortzen dituzte bi urte geroago.



3. Zehatza: laserrak energia zehatza ematen du zaina beroaren bidez zigitatzeko, zuntza biltzeko sistema automatiko baten bidez.



4. Segurua: ISO 9001:2015 arauarekin ziurtatua, posible diren konplikazioak edo albo-ondorioak minimizatzeko prebentzio-eta segurtasun-neurriak ebaluatzen dituen.



5. Erosoa: bizitza normalari berehala ekiteko aukera ematen du.

INFORMAZIO
GEHIAGO BEHAR
IZANEZ GERO
QR KODE HAU
ESKANEATU

**DERMITEK**

Uribitarte pasealekua 11-12. 48001 BILBO

(Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefona: 944 010 110

Astelehenetik barikura: 8:30-20:00
Zapatuetan: 9:00-15:00

Paul Bilbao eta Beñat Garaio Euskaran adituak

«Gaur egun, euskara ez dago erdigunean»



Euskararen kaleko erabilera behera doa; hori adierazten dute datuek. Nola izan daiteke hizkuntzaren ezagutza eta erabilera sustatzeko inoiz baino baliabide eta ahalegin gehiago egiten diren garaian erabilerak behera egitea? Horri buruz gehiago jakiteko, Egizuk eta Azebarrik antolatu duten *Euskal(e)gintza* hitzaldietara gonbidatutako hizkuntzaren aditu bigaz elkartu gara.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES, ALEA, ARGIA** ►



Paul Bilbao Sarria

Euskal Filologian lizentziatua, hizkuntza-eskubideen aldeko aktibista eta Euskararen Gizarte Erakundeetako Kontseiluko idazkari nagusia 2010etik. Horren aurretik, Hizkuntza Eskubideen Behatokian aritu, eta bederatzi urte eman zituen Behatokiko kudeatzaile-lanetan.



Beñat Garaio Mendizabal

Soziolinguista da, eta hizkuntza gutxituen biziberritzean aritu da, bai ikerketa mailan –*Euskal Eskola Eleanitz arrakastatsua identifikatzen: D ereduko eskolen indarguneak arakatzeko kasu azterketa bikoitza* tesia ari da egiten–, baita ekimen ezberdinen antolakuntzan ere. Bat Soziolinguistika Aldizkariko argitalpen batzordeko kidea ere bada.

Azkenaldian asko entzuten ari da euskararen kaleko erabilerak atzera egin duela, eta gazteek gero eta gutxiago egiten dutela euskaraz. Ados zaudete baieztapen horregaz?

PAUL BILBAO: Ni ez nago horrekin ados. Askotan ikusten dugu jende euskaldunak euskara erabiltzen ez duela, baina nik uste dut halako esaldi potolo bat botatzen denean, lehenik eta behin, hausnartu egin beharra dagoela zergatik gertatzen ari den hori; hau da, zergatik jendeak ez du euskara erabiltzen? Hor ohartuko gara mito batzuk erori egingo zaizkigula. Horren inguruko artikulua bat irakurri dut, non zera aipatzen den: ezagutza erlatiboa eta erabilera. Gure testuingurura ekarrita, Algortara ekarrita, galdetzen badugu gazteek zergatik ez duten euskara erabiltzen, horri erantzuteko beraiei hizkuntza-gaitasuna aztertu beharko genuke lehenaldian. Azkenean, gazte ia guztiak elebidunak dira, gutxienez, baina jakin beharko genuke zein hizkuntzatan dauden erosoago, zein hizkuntzatan daukaten baliabide gehiago eta zeinetan duten komunikazio-gaitasun handiagoa, hain zuzen ere. Elebidunak garenok hizkuntza hautu bat egiten dugu; hainbat baldintza dituen auke-

Gazteak

«Gazte ia guztiak elebidunak dira, gutxienez, baina jakin beharko genuke zein hizkuntzatan dauden erosoago, zein hizkuntzatan daukaten baliabide gehiago eta zeinetan duten komunikazio-gaitasun handiagoa»

Euskara alboratuta

«Lehen, ikasleak oso konprometituta zeuden euskara ikasteko, eta euskaltegietan ikusten zen konpromiso hori. Gaur egun, euskararen gaia, bai politikoki bai sozialki ere, pixka bat baztertuta geratu da»

raketa bat egiten dugu. Orduan, hizkuntzaren ezagutza egokia ez bada, alegia, nik ez badaukat gaitasun errealekin gazteek beraiei jergarekin kontatzen dituzten gauza horiek euskaraz adierazteko, baina, aldiz, gaztelaniaz bai, bietako zeinetara joko dut? Gaztelaniara, ez baldin badut halako kontzientzia euskaltzale bat behintzat.

BEÑAT GARAIO: Euskararen aldeko militantzia asko aldatu dela kontutan hartu behar da, zentzu batean murriztu egin dela esango nuke. Gainera, hezkuntzan ez da gaurkotze bat eman egoera berrietara egokitzeko, ez metodologia aldetik ezta planteamendu aldetik ere. Bestalde, profilak aldatu egin dira, eta gero eta gehiago dira etxean gaztelaniaz egiten duten edo euskara erabiltzen ez duten familiak. Bestalde, gero eta kontsumo handiagoa egiten dute bai gaztelaniaz baita ingelesez ere; izan ere, sare sozialen hazkundearekin euskara baztertuta geratu da. Lehen denok *Dragoi Bola* edo *Shin-chan* ikusten genituen bezala, orain gazteen artean inork gutxi kontsumitzen du euskaraz, eta horrek ere ezinbesteko eragina dauka euskararen erabileran.



Beñat Garaio (Gasteiz, 1990) bertsolaria izateaz gain, gai-jartzaile ere aritu da. ARGIA

Zein esango zenukete dela arazo horren jatorria? B.G.: Ez dakit mundu guztia nirekin ados egongo den, baina nik esango nuke euskararen aldeko militantziak, familiek, irakasleek... euskararen alorrean dagoen edozeinek egiten duena geroz eta murriztagoa dela. Ez dago lehen zegoen eferbeszentzia hori. Historikoki, lehen ikasleak oso konprometitu zeuden euskara ikasteko, eta euskaltegietan ikusten zen konpromiso hori. Gaur egun, euskararen gaia, bai politikoki baita sozialki ere, pixka bat baztertuta geratu da, edo behintzat lehentasunen sailkapen birtual horretan beherago joan dela esango nuke; beste motibazio edo arazo batzuk tartean. Gaur egun, euskara ez dago erdigunean.

P.B.: Azkenaldian atera diren datuek hori erakusten dute; alegia, ezagutza ez dala pentsatzen genuena bezain ona, eta ezagutza onik ez baduzu, zuk beste hizkuntza batean egingo duzu berba, erosoan duzuna, ez baldin baduzu inolako testuinguru identitariorik, behintzat. Txilardegik berak matematikoki frogatu zuen bezala, euskalduna, oro har, euskarari atxikitzen zaio. Badaude euskara dakiten pertsonak eta erabiltzen ez dutenak, baina ez da orokortua. Halakoetan beti esaten dut esaldi kategorikoak alde batera utz ditza-gula, eta benetan zer ari den gertatzen ikus dezagun. Eta arazoa da hezkuntza-gaitasunekin problema bat daukagula, eta arazoa du-

gula ez ditugulako behar beste espazio euskaraz lasai aritzeko.

Askok errua bota diote Hezkuntzari, eta esan dute D ereduek porrot egin duela. Hala dela uste duzue? P.B.: Egiturazko arazo bat daukagu Hezkuntzan, hori hala da. Egia da Hezkuntzak hainbat hiztun berri ekarri dituela euskal komunitatera; horretan ez dago inongo zalantzarik. Baina egia da azken urteetan alarma gorriak pizten ari direla, bai D ereduan baita B ereduan ere. Uste dut kontziente izan behar garela euskara hizkuntza gutxitua dela, eta horrek isla izan behar du garatzen diren hezkuntza-proiektuetan; guk ezin dugu pentsatu Algorta batean erabiltzen den hezkuntza-eredua Valladoliden erabiltzen denaren berdina izango dela, gurean hizkuntza gutxitu bat dagoelako. Orduan, horrekin kontsekuenteak izan behar gara, eta ematen diogun tratamendua zeharkakoa izan behar da. Horretaz gain, pentsatzen dut nola-baiteko sentsazioa daukagula normaltasunera heldu garela ere.

B.G.: D ereduen helburuetako bat zen euskara biziberritzea, eta, horretarako, ikasleek euskara-gaitasun egokia lortu behar zuten. Ebaluazio-diagnostikoek adierazi dute hori ez dela lortu eta, beraz, argi dago zerbaitek huts egin duela. Bestalde, eskoletako euskararen erabilera ere gero eta baxuagoa da, D ereduan ere eta, horregatik, argi dago hainbat alor gaurkotu egin behar direla: metodologia, irakasleen formakuntza, irakasle eta gurasoen hizkuntza-jarrerak... Agian apur bat polemikoa izan daiteke, baina eskolaren segregazioaren gaiak ere eragina dauka. Azken finean, etorkinak edo maila ekonomiko baxuko ikasleak ikasgela batean isolatuta geratzen baldin badira, aukera gutxiago izango dute euskaraz hitz egiteko, eta horrek ezinbestez beraien hizkuntza-gaitasunetan eragina izango du. Hezkuntza-mailan dagoen gatazkak ere eragina dauka euskararen, baina gai arantzatsua da, eta konponbidea ikustea ez da erraza. Uste dut aurrean ditugun konponbide guztiak hartu beharko genituzkeela, denak koktel berdinean sartu eta enbido handira bota. Gainera, uste dut garaia dela horretarako, bestela, indarrak xahutzen egongo gara, eta denbora aurrera doa. Beraz, uste dut momentu oso garrantzitsua dela horrelako zerbaite egiteko, anbizioz eta gogoz.

Beraz, uste duzue gehiegi lasaitu garela; iraganean geneukan hizkuntzarekiko ardurari hori apur bat galdu egin dugula? P.B.: Badirudi hemen erantzukizuna euskaldunona dela beti, eta ni apur bat nekatuta nago baiez-



Euskal(e)gintza

Egizu Getxo Euskaldun euskara elkarteak eta Azebarrik hiru berbaldi prestatu dituzte euskalgintzak gaur egun dituen erronkei buruz. Lehena, urriaren 21ean izango da, soziolinguistikari buruzkoa; bertan izango dira Paul Bilbao eta Beñat Garaio, Belen Urangagaz batera. Horretaz gain, intersektionalitatea eta dekolonizitatea landuko dute, azaroaren 18an; eta abenduaren 16an, berriz, ekonomia sozialaren ildotik jarraituko dute.

tapen horrekin: une oro euskararen egoeraren erantzukizuna euskaldunaren bizkarrean jartzearekin, hain zuzen ere. Ni saiatzen naiz euskaraz bizitzen eta hori erabiltzen, baina askotan ez didate uzten. Gertatzen dena da gure herrian oraindik erdaldun elebakar asko dagoela, eta horiek euskara erabiltzeko mugak jartzen dizkidate. Adibidez, askotan gertatzen da kuadrilla batean erdaldun bat edo euskaraz hain ondo ez dakien norbait bada, gaztelaniara jotzen dugula. Horregatik, uste dut atzetik hausnarketa bat egin beharke genukeela. Bestalde, gaitasunaren kontua sartzen da tartean, baina horri erreparatzeko hezkuntza-sistemari begiratu behar diogu, eta aztertu ea nola eragin diezaiokegun.

B.G.: Bai, eta, gainera, inposizioaren diskurtsoak ere bere eragina du. D eredua oraindik ez dago guztiz zabaldua, eta, horretan ikasi arren, ikasle askok eta askok euskara ez dute ondo menderatzen; eta, ondo menderatzen ez badute, nekez hitz egingo dute; eta nekez hitz egiten badute, ez dute menderatuko. Zentzu horretan, ditugun helburu eta tresna gutxiak ikusita, esango nuke gure deposituak fuga bat daukala, eta hortik gasolina edo energia piloa ari garela galtzen. Datozen urteetara begira, gazteen ezagutza izan daiteke gure pizgarria edo gure bultzada, baina gazteei garrantzia gehiegi eman gabe, ez dezagun ahaztu neurri-bateria horiek ondo mantentzearen ardura helduena eta agintariena dela. Egia da kezkak hor daudela, baina esan beharra dago gauza asko lortzen ari direla, eta badaude motiboak pozik eta itxaropentsu egoteko. Askotan, arazoei buruz hitz egiten dugu, baina, nire ustez, zer ospatu eta zer txalotu ere badaukagu.

Non uste duzue egon daitekeela egoera horri buelta emateko gakoak? P.B.: Alde batetik, zereginen artean daukagu hizkuntza-gaitasunetan eragitea. Alde horretatik, azkenaldian, hezkuntza-politikaren lege berriaren ahotsak entzuten ari gara. Nik uste dut behingoz ikaste-eredu orokortua ezarri beharko litzatekeela, ikasle guztien euskara-gaitasun egokia bermatuko duena. Argi dago abiatzeko sistema D eredua dela, baina hori ez da nahikoa. Esan nahi dudana da eredu hori indartu eta ratioak ere jaitsi beharko liratekeela. Gero, beste alde batetik, euskara erabiltzeko espazioak ere behar ditugu. Horien bitartez, lasaitasun osoz euskaraz berba egiteko aukera izango dugu, inolako estres linguistikorik gabe. Baina, horretaz gain, bestelako espazioak ere sortu beharko dira, batez ere aisialdian. Ni seguru nago herritar batek euskara-gaitasun egokia badauka, eta



Paul Bilbao (Algorta, 1971) kultur ekintzailea eta ikertzailea da.

2016

urtean Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko hizkuntza erabileraren azken kale-neurketa egin zuen.

% 12,6

izan zen zen 2016an sumatu zuten euskararen kale-erabilera Euskal Herrian; 1997tik portzentajerik txikiena.

% 46

da Uribe Kostan euskara dakitenen portzentajea. Horrela ondorioztatu zuten 2016an, eskualdeko 36.000 bizilagunen hizkuntza ohiturak aztertu eta gero; gainera, behera doan joera ere dela adierazi zuten.

euskara normaltasunez erabiltzeko aukerak badauzka, pertsona horrek euskara erabiltzeko duela. Orduan, nik uste dut gakoak hor daudela.

B.G.: Hezkuntza- eta euskara-eragileen kasuan, aldarrikapenak hor egon dira, eta egia da ematen duela azken urteetan erakundeek ez dutela mugimendu handirik egin ikusitako egoeraren larritasunaren harira. Baina, politikarien azken kontaktu eta adierazpenak ikusita, badirudi badagoela ardura eta gogoia hori iraultzeko, eta Hezkuntza Sailean ere jende berria sartu da, kargudun berriak daude, eta badago asmoa hurrengo urteetan erronka horri erantzuteko. Adibidez, horren inguruan izan ditugun albisteak arabera, EH Bilduk eta EAJk akordio bat lortu dute D eredua birmoldatzeko. Ikusi beharko da zertan geratzen den, baina badirudi zerbait aldatzen ari dela, eta euskararen eta D ereduaren onerako bada, ezin hobeto. Baikorra naiz ikusten dudalako gauza batzuk aldatzen ari direla, eta jendea arduratuta egoteaz gain, martxan dagoela, saretzen ari dela, botoi ezberdinak ukitzen eta inguruko jendea aktibatzen ari dela. Hori itxaropentsua dela iruditzen zait. Gainera, euskararen biziberritzearen alde lanean egotea eta ezkorra izatea ez da kontraeratsa, baina Kike Amunarrizek esaten zuen bezala: «Prezio berean, nahiago dut itxaropentsua izatea». ◀

Matxalen de Pedro Antzerki sortzailea

«Opari bat da horrelako historia bat edukitzea eta modu horretara kontatu ahal izatea»

ANDER ZARRAGA ►

Urriaren hasieran, Busturri Herri Antzerki Elkartek *Butroe, zelangoa dan orok dakie* antzezlanaren aurkeztu zuen. Horren eszena-zuzendaria izan da Matxalen de Pedro antzerkigile eta dantzaria. Dantzeri Euskadiko Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskolan irakaslea eta Horman Poster kolektiboaren sortzailea da bera, eta antzezlanaz eta bere ibilbideaz gehiago jakiteko beragaz elkartu gara.

Hainbat lan profesional egin dituzu, nola-koa da herri-antzerki bat zuzentzea? Niretzat oso polita da. Egiten dudana lehen aldian izan arren, Horman Poster kolektiboan amateurak edo antzerkiagaz lehen aldian harrimana duten pertsonekin ere egiten dugu lan; beraz, neurria apur bat hartuta diot, eta badakit noraino eskatu dezakedan. Ez dute ezertan aktore profesionalen lana egin behar, azken finean, denbora librean, beraien borondatez eta musu-truk egiten duten gauza bat da. Berez, niretzako hori oso gauza polita da. Gainera, oso kurioa da, batzuk berriak izan arren, beste batzuek hirugarren edo laugarren

Antigone edo ezetzaren beharra

Horman Poster kolektiboaren antzezlanaren emanaldiak jarraitzen du Matxalen de Pedrok; hauek dira hurrengo datak: urriaren 17an BAD jaialdian, Bilbon; urriaren 22an, Zumaian; eta azaroaren 3an, Bilboko BBK aretoan.



De Pedrok interpretazioa,

nez egin dute eta, beraz, ikusten da badaukatela nolabaiteko ezagutza bat.

Zer kontatzen du obrak? Busturri Herri Antzerki Elkartek duen beste balio handia da herriko eta eskualdeko historia berreskuratzeko helburua duela. Hori eta euskaraz egiten dela, berez, Goriñ eta Plentzia ez direlako herri oso euskaldunak. Orduan, hainbeste jende inplikatzeko dituen gauza bat euskaraz egitea oso polita da. Kasu honetan, XVI. mendeko gatazka legal baten ingurukoa da, non Butroe familiak auzitara eraman zuten Plentziako Udala marea-erota egin zuelako. Ho-

Ikasi euskara, bidelagun onenarekin

aek
euskara praktikoa

Uribe Kostako AEK

Euskalduntzearen C2 Maila
Astean 3 Egunetan

EMAN IZENA!

Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus
www.aek.eus/blogak/uribekosta
www.facebook.com/uribekostako.aek

DIRULAGUNTZAK



sormena eta esperimazioagaz lotutako ikasgaiak irakasten ditu Dantzerri eskolan. HODEI TORRES

rrek kalte egiten zien familiaren interesei, beraien beste errota bat zutelako Gatican, eta, orduan, auzitara eraman zuten herria, esanez beraien aitzak hori eraiki zuenean, hitzartu zutela plentziarrek beraien garia horra eramango zutela. Azkenean, Plentziako herriak irabazi zuen epaia. Bitartean, herria ebaizpe-naren zain dago, eta hor gertatzen dena da istorioaren trama nagusia. Uste dut opari bat dela horrelako historia edukitzea eta modu horretara kontatu ahal izatea.

Ibilbide luzea egin duzu oholtza gainean. Kontatu ahal diguzu zertan zbiltzan une

Antzerki kode desberdinak

«Antzerki komertzialagoak programatzen dituzte, baina antzoki publikoen kasuan, beraien lana ikuslegoa heztea izan beharko litzatekeela uste dut»

honetan? Igor de Quadra eta biok, Horman Poster kolektiboa duela hamar urte sortu genuenetik, hainbat gauza egin ditugu. Baina duela pare bat urte, beste hiru kide fitxatu genituen, Dantzerriko lehen promozioakoak, hain zuzen ere. Hortik jaio zen *Antigone edo ezetzaren beharra* tragedia grekoaren gure bertsio libre; nabarmendu beharra dago lehen aldiz euskaraz egiten den lan horren moldaketa dela. Horretaz gain, orain, ikus-kizun berri bat egiten ari gara, 2022ko azaroan Arriaga antzokian estreinatuko duguna. Orain arte, klasikoekin eta tragediekin ibili bagara, hurrengoan, komediara joko dugu, kritikarik eta hausnarketarik espazioarekin dugun lilura horrekin barre egitera.

Horman Posterren ez duzue ohiko antzerkia egiten; nola definituko zenukete zuen lana?

Egia esan, beti ditugu arazoak zein antzerki mota egiten dugun deskribatzeko. Alde bate-tik, erresistentzia kontu bat delako: ez dago zertan azaldu behar; joan eta ikusi. Baina egia da pertsona batzuei antzerkitzat duten ideia hausten diela, dantzatik performan-cetik eta beste arte plastikoetatik asko eda-ten dugulako, eta, orduan, horren nahaste bat da. Pertsonaiak, hitza eta mugimendua dago, eta plastikoki dena dago oso zainduta, eta kode desberdinak ikertzea atsegin dugu. Gaur egun, batez ere ikus entzunezkoetan, jendeak ohitura dauka beste pelikula eta kode mota batzuk ikustera, baina antzerkia-ren munduan badirudi erresistentzia pun-tu bat dagoela, batez ere, programatzaileen aldetik. Uste dut programazioetan apur bat arriskatzeko falta dela. Beraien presioak izan-go dituzte publikoa joan dadin, eta horrega-tik antzerki komertzialagoak programatzen dituzte; baina antzoki publikoen kasuan, be-raien lana ikuslegoa heztea izan beharko li-tzatekeela uste dut. ◀

JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA

2021-2022
Matrikula zabalik

94 460 66 71
idazkaritza@jagirre.eus
www.jagirre.eus

HABE diruz lagundua
HADE

+16 urte/años
Maila guztiak, goizez eta arratsaldean.
Todos los niveles, por la mañana y por la tarde.

**Larunbatetan/
sábados**
B1, B2 eta C1.

6-16 urte/años
Astelehen eta asteazkenean edo astearte eta ostegunetan.
Lunes y miércoles, o martes y jueves.
17:30 - 19:00

**Bulego ordutegia/
horario de oficina**
9:30 - 13:30
17:00 - 20:00

Irakurrian **Uzta garaia**

Desjabetuak eta deserosotasuna

«Zelan bihur daiteke pertsona bat guztiona den edo inorena ez den gauza baten jabe?». Besteak beste, galdera hori egiten die 14 urteko Iraultzak gurasoei.

UXUNE IRIONDO URBIZTAZU ►

Bere herriko mahats-bilketara etorritako sasoiakako langileen kanpalekuan Baazima ezagutu duenean, mundua eta gorputza lehertu zaizkio. Haren ahotik askotariko zapalkuntzei zelan eusten dien entzun duenean, ez dakit isilik eta geldi egoteko gai izango den.

«Gauza batzuk ezin dira ukitu sistema osoan arrakalak sortu gabe», diotso Baazimak. «Ezagutzen duzun mundu erosoaren zutabeak gara: esklabotza eta, noski, sexu-esklabotza. Zuk uste duzu zutabeak zartatzeko prest egongo direla zuen agintariak?».



Uzta garaia

Egilea: Asel Luzarraga

Argitaletxea: Elkar

Urtea: 2021

Orrialde kopurua: 120

Jatorrizko hizkuntza: Euskara

Gazteentzat idatzitako eleberri anarkofeminista honetan labur, argi eta gordin azaltzen ditu jabetza pribatua eta gure ekonomia-
ren oinarriak. Normalean zalantzan jartzen ez diren kontu askoren inguruan eztabaidatzera bultzatu nahi ditu gazteak, zer den eskubidea, zer den pribilegioa.

«Gure artean ere, ikusi ez arren, ehunka desjabetu bizi dira», dio atzeko azalean. Gehituko nuke ikusi arren ezikusia ere egiten dugula sarri, desjabetze horietan gizarte eta norbanako modura erantzukizunik edo ardurarik ez dugulakoan, gure «jabetzak» arriskuan ikusten ditugulako. Baina... Zelan bihur daiteke pertsona bat guztiona den edo inorena ez den gauza baten jabe? Bidegabekeria ugari normalizatuta daukagun honetan isilik eta geldi egotea, beste alde batera begiratzea, ez dira eskubideak. Beraz, gomendatzen dizuet trilogia bateko lehena den liburu hau, gazte eta ez gazte, guraso eta irakasle. Uzta on! ◀

EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Rodeo

«Zestoan beti egon da musikarako joera handia»

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO

ARGAZKIA: RODEO ▶

Belardi luze eta bakartietan, segaren doinu geldoen erritmo berean harra-patuta sentituko gara zestoar hauen zurrunbiloan erortzen garenean. Ikustekoa izango da, hilabete honen bukaeran, *stonner* pisutsu honen zurrunbiloa Algotako itsasoko olatuekin elkartzen denean.

Zein izan da taldearen bilakaera urte haue-tan guztietan? Zestoako gaztetxean, urtero egin ohi den bertsioen gauean zerbait jotzeko elkartu ginen orain dela sei bat urte, eta, hasierako momentutik, konturatu ginen zerbait gehiago egiteko gogoia genuela. Ordutik hona, gelditu gabe aritu gara. Musikari dago-kionez, denon ikuspuntua nahiko antzekoa da, eta eman dugun garapena naturala izan da. Uneoro, barrutik irten zaiguna egin dugu,itsu-itsuan zerbaiten bila joan gabe.

Stonner pisutsua egiten duzue, eta nabaria da zuek bilatutako doinuak lortzen dituzue-la. Nondik datorkizue hori? Gustu kontua dela esango nuke. Taldea sortu genuenean KYUSS taldearen bertsioak jotzen hasi ginen, lauroi asko gustatzen zaigun talde bat delako, eta hori izan zen abiapuntua. Hortik aurrera, talde berri asko ezagutu ditugu, eta beste estilo batzuk ere entzuten ditugu.

Zestoatik talde nahiko esanguratsu eta indartsuak irteten ari dira. Zein esango zenukete dela arrazoia? Zestoan beti egon da musikarako joera handia. Lin Ton Taun, Leize, Grises, Rural Zombies, Ezpalak eta Ankhar bezalako taldeak 4.000 biztanleko herri txiki batetik irtetea ez da kasualitatea. Herri txikia izanik, adin eta kuadrilla ezberdinetako jendearekin harremana izatea erraza da eta, hortik, askotan sortzen dira proiektu berriak. Herriko gaztetxean ere betidanik antolatu dira askotariko kontzertuak, eta ohitura handia egon izan da gazteak bertara joateko musikaz gozatzera. Ahal dugun neurrian horri eusten saiatzen gara, eta ikusten dugu belau-naldi gazteagoetan ere grina horrek bizirik jarraitzen duela.



Aste Kulturala Algortako Portu Zaharrean

Zestoarrak urriaren 22an izango dira Barne Barnetik kolektiboak antolatutako Portu zaharreko Aste kulturala. Stoner-musika izanik gehien eragiten dituen estiloa, hemen euren talde gustuko batzuk: Truckfighters, Brant Bjork, Karma To Burn, El Caco, Arenna, 1000 Mods, Toundra, Lisabo...

Stonner talde bat izanda zuen letrei garrantzi dezente ematen diozue, eta zabaltzen duzuen mezua nabaria da; zer dela eta? Bizitzea tokatu zaigun garaian, ezinbestekoa iruditzen zaigu bizi dugun errealitateari buruz hitz egitea. Ahal dugun neurrian, ikusten ditugun injustiziak azaleratzen saiatzea, eta, nolabait, jendearen kontzientzia astintzea baita ere. Askoz errazagoa litzateke dena zein polita eta atsegina den esaten zentratzea, baina mezu horiek nahiko hutsak iruditzen zaizkigu. Gainera, azken urte honetan bizi izan dugunarekin, sekula baino argiago geratu da zeinen gordina den errealitatea zapalduontzat, eta hori salatzea da guri barrutik irteten zaiguna.

Bukatzeko, Dilmun diskoan Benito Lertxundiren bertsio bat duzue. Nondik etorri zen ideia? Nahiz eta oso kantu zaharra izan, beti iruditu izan zaigu bere letrak ez duela zentzurik galdu urteetan. Oso identifikatuta sentitzen gara bere esanahiarekin. Horrez gainera, musikalki ere asko gustatzen zaigu abestia. Emaitzarekin oso gustura geratu ginen gu, eta Benitoren zaleei ere asko gustatu zitzaizen gure moldaketa. ◀

Ibon Larrinaga Boxeolaria eta boxeo-entrenatzailea

«Boxeolari guztion ametsa da Munduko Txapelketan borrokatu ahal izatea»

Joana 'Nany' Suarez eta Kerman Lejarraga eta boxeolarien entrenatzaile da gaur egun Ibon Larrinaga itzubaltzetarra, eta biak Europako txapeldun izatea lortu du.

IKER RINCON MORENO ►

Goi mailako boxeoa borrokalari gisa jardun eta gero, punta-puntako boxeolariak prestatzen dabil orain Ibon Larrinaga itzubaltzetarra; Joana 'Nany' Suarez eta Kerman Lejarraga borrokalarien entrenatzailea da, eta abuztu-irailean biak Europako titulua eskuratzea lortu du, minimoska eta superwelter kategorietan, hurrenez hurren.

Garaipen biak etxeratu ondoren, Larrinagak aitortzen du «erantzukizunez» heldu diola erronkari, orain arte prestatu dituen borrokalariak amateurak izan direlako. Zazpi urte eman ditu entrenatzaile, eta azken urteetan prestakuntza lanak borrokakaz tartekatu ditu. Orain, baina, bi kirolarion etorkizuna prestatzeari heldu dio, «prest ikusten nuen nire burua halako pausoa emateko, urte asko entrenatzen eta ikasten daramatzadalako. Baina, egia esan, bertigo apur bat ematen zidan», dio. Izan ere, bi boxeolariak ditu lagun, eta haien garaipena ala porrota bere ardura zelakoan, «presio gehiago sortzen zidan. Lagun eta profesional moduan ondo jardun nahi nuelako».

Suarezek iragan abuztuaren 28an jantzi zuen gerrikoa, eta irailaren 12an Lejarragak. Aste bitan, titulu bi. Balorazio ezin hobe egin du itzubaltzetarrak bere kirolariek lortutako emaitzakaz: «Oso pozik nago egindako lanarekin; eskatu diedan guztia eta gehiago eman dute borroketan». Ildo horretan, burua hotz, eta bere lekuan izatea gakoa dela dio entrenatzaileak. «Fisikoaz eta boxeoaz aparte, burua oso garrantzitsua da. Borroka guz-



Ibon Larrinaga itzubaltzetarrak entrenatu ditu Lejarraga eta Suarez. HODEI TORRES

Ikusi eta ikasi

«Entrenatzen eman ditudan zazpi urteotan asko ikasi dut ikasleekin batera; oso aberasgarria da»

Poztasuna

«Oso pozgarria da zure borrokalari batek gauza handiak lortzea; eta lagunak direnean, are gehiago»

tiz kontrara jar daiteke, edo galtzen hasi. Burua ondo kokatuta edukiz gero, baina, egoera irauli dezakezu. Hori da gakoa».

Behin Europako titulu biak gordeta, horiek defendatu eta, ahal izatekotan, Munduko Txapelketara salto egitea espero dute hirurek. «Boxeoa gabiltzanok, berton sartzen garen momentutik gure ametsa Munduko Txapelketan borrokatzea da. Eta hori da helburu nagusia».

Uneotan, Suarez eta Lejarragaren prestatzaile den bitartean, Larrinagak ezin izango du borrokatu. Hala ere, ez du baztertzen ringera igotzea berriro: «Adrenalina puntu hori faltan botatzen dut». ◀

Higinio Rivero Piragua-arraunlaria

«Ez nuen espero zilarra lortzea Mundialean»

Tokioko Paralinpiar Jokoetan seigarren postua eskuratu ostean, Higinio Rivero piraguako Munduko txapelkunorde izendatu da VL2 200 metroko proban, Kopengagen lehiatu zen txapelketan.

ANDER ZARRAGA ►

Parakanoeko arraunlari profesionala da Higinio Rivero (Bilbo, 1982). Barrika Piragua Taldeko kideak 2016an eta 2017an Munduko Txapelketak irabazi zituen maratoni modalitatean; horren ostean, esprint modalitatean aldatzea erabaki zuen Joko Paralinpikoetan parte hartu ahal izateko. Hala, irailean, Tokioko Jokoetan egon zen munduko onenakaz lehiatzen. Aitortu du baldintzak ez zirela onenak izan, eta horregatik seigarren postuagaz konformatu behar izan zen. Hala ere, irailaren 17an, Kopengageko (Danimarka) Munduko Txapelketan bere trebezia erakusteko beste aukera bat izan zuen, eta zilarra eskuratu ere.

Jokoak seigarren postuan bukatu zenituen, eta gerora aitortu zenuen eguraldiak eragina izan zuela. Zer gertatu zen? Eguraldiak eragina izan zuen bai, eta domina bat eskuratzeko lehian sartu nahi izan banuen ere, errealista izanda, soilik hirugarren edo laugarren postuagatik borrokatzeko aukera nuen; zorte askogaz bigarren postua ere eskuratu neza-keela uste dut. Hala ere, egia da haizeak bere eragina izan zuela proban; izan ere, ufadek ezkeraldetik jotzen zuten, eta alde horretan harmailak zeuden, beraz, hor zeudenak babestuago zeuden; aldiz, ni eskuinaldean nengoen, eta haizeak nahiko eragiten zidan. Orain, Munduko Txapelketan, baldintza normalakaz eta aurkari berdinen aurka bigarren postuan geratu naiz. Bestalde, Tokiora joan aurretik, aste bi egon behar izan ginen Sevillan burbuila batean, eta fisikoki nahiko indartsu heldu banintzen ere, psikologikoki ez nintzen % 100ean egon, % 98an baizik, eta horrek emaitza baldintzatu dezake baita.



Riverok piraguako VL2-200 metroko kategorian eskuratu du garaipena. HOEI TORRES

Eta orain zer?

«Denboraldi batez piragua alde batera utzi, eta Espainiako triatloi txapelketara joan naiz. Denboraldian zehar handbike edo esku-bizikleta egiten egon naiz kirol osagarri bezala. Guk triatloietan, igeriketaz gain, gurpildun aulkia eta egokitutako bizikleta erabiltzen ditugu. Lehiatzeko beste modu bat da. Ez naiz geldituko, baina buruarentzako apur bat gelditzea ondo datorkidala uste dut, gero piragua ere gogo gehiagaz hartu ahal izateko»

Irailaren 17an zilarra eskuratu zenuen Kopengageko Munduko Txapelketan, pozik zaude emaitza horregaz? Arantza bat kentzearen modukoa izan da. Ez nuen espero bigarren geratzea, baina bai beste lehiakide batzuen aurretik egitea, Olinpiar Jokoetan baldintza normalean aritu izango bagina bezala. Hala ere, lehen postua eskuratu zuen Fernando Rufino de Paulo brasildarra pauso bat gainera dago, baina hurbiltzen goaz.

Azkenaldian, parte hartu duzun lehiaketa guztietan goiko aldean kokatzea lortu duzu. Lan gogorraren emaitza da hori? Bai, apustua egin nuen goiko aldean egoteko, eta horren emaitza dela esango nuke. Lehen 15en artean egoteko nolabaiteko profesionaltasuna behar duzu prestaketan. Oro har, pentsatzen da, eta, istripua izan aurretik nik ere pentsatzen nuen, fisikoki sendo dagoen edonork lortu ditzakeela emaitzak egokitutako kirolean, baina ez da horrela. Goian egoteko gogor eta modu profesionalen antzeko behar duzu. Beraz, azkenaldian, urteko ia hamar hilabete egiten ditut etxetik kanpo, errendimendu handiko zentroetan entrenatzen, eta horrek eman dit dominengatik borrokatzen egoteko aukera. ◀



“Pribilegiatu bat naiz.
Nire belaunaldikook beti
izan dugu BERRIA”

Eneritz Furiak

Musikaria

berria

zuk badakizulako

Egin

BERRIAlaguna



Estonagarria!

Harrigarria! Txundigarria! Zurgarria! Estonagarria! Espantagarria! Sinonimoak dira denak, bai. Baina zer esan nahi du etimologikoki grekotik heldu zaigun 'sinonimo' hitzak? *Sin* (zerbaitekin batera) + *onoma* (izena); beraz, sinonimoak esanahi bera edo bertsua duten hitzak dira, ezberdin idazten badira ere. Eta zertarako nahi ditugu sinonimoak? Beharrezkoak al dira? Idazleak estimatu egiten ditu, errepikapenak saihesteko aldera. Irakurleak ere atsegin du idazleak sinonimoen bitartez eskainitako aberastasun kromatikoak. Bertsolariak ere ez die **muzin** egingo sinonimoei. Izan ere, antzeko esangurako baina silaba kopuru ezberdineko hitzak behar ditu **morralean**, neurriak eskatzen duenean erabiltzeko: *mo-tza* (silaba bi), *za-ta-rra* (3), *i-tsu-si-a* (4), *e-ra-ga-be-a* (5), *ta-xu-ga-be-ko-a* (6), *i-txu-ra-ga-be-ko-a* (7)...

Orduan institutuetaiko ikasleak dira sinonimoei **antojua**, nazka, iguina, narda dieten bakarrak? Oraingoz agian bai, baina laster ohartuko dira eurak ere zelako **lanabes** eraginkorra den sinonimia, adierazi nahi duguna zehaztasunez adierazteko, azaldu nahi duguna geure gogoko hitzez azaltzeko, **egoki dakigukeen** edozein komunikazio ekintza egokitasunez burutzeko. Brikolajeko tresna kutxa dugu adibiderik argigarriena hori erakusteko. Eskulan bat egitera goazenean, aldea egoten da tresna kutxan zenbat eta zelako erremintak daramatzagun. Nolako erreminta kutxa, halako emaitza!

Eta zein du, ba, euskarak sinonimo iturririk emankorrena? Euskalkiak eta azpieuskalkiak. Testu honen hasieran eman ditugun sinonimoetatik, lehenengo biak orokorrak dira egun, bigarrena mendealdekoa eta 'gutxi erabilia' marka darama hiztegi batuan, eta azkeneko biak 'iparraldekoa' marka dute aipatu hiztegian. Baina denak dira gure euskara batua-
ren seme-alabak. Onartu, onetsi, **ederretsi** ez ezik, **olga**, jolas, josta gaitezen eurekin! ◀



Berba azoka

Harrigarri

Harritzen duen gauza edo gertaera, harrimena sortzen duena. *Sin.*: txundigarri, zurgarri, estonagarri, espantagarri.

Sinonimo(ak)

Esanahi bera edo bertsua duten hitzak; esaldi berean, beronen esanahia aldatu gabe, bata bestearen tokian jar daitezkeen terminoez esaten da.

Muzin

Norbaitek zerbait atsegin edo gogoko ez duela erakusteko egiten duen keinua.

Morral

Zakutoa, zorroa. Adib.: *Beti beharre(a)n eta kaka morrale(a)n* (Uribe Kostako esalegea da, beti lanean ibili arren, egindakoaren ordainik jaso ez dugula adierazteko).

Antoju

Norbaiti batere gogoko ez duen zerbaitek eragiten dion atzerakuntza sentipen bizia. *Sin.*: nazka, higuina, narda.

Lanabes

Lan bat egiteko erabiltzen den objektua, pieza batez edo gehiagoz osatua. *Sin.*: langai, tresna, erreminta, trepetu, gailu, errekaiteu

Egoki dakigukeen

Egokitu edo suertatu ahal zaigun.

Ederretsi

Ontzat hartu, eder iritzi. *Sin.*: onartu, onetsi.

Olgatu

Jolasaren bidez atsegin hartu, jolasean ibili, jolas egin. *Sin.*: jolastu, jostatatu.

Edozein esperimentu da ona ikasteko

Mobilaren pantaila, ispilu bat, soka eta torloju bat; argazkilaritzaren munduan mila trikimailu daude. Bai artistikoki esperimentatzeko, baita teknikoki laguntzeko ere dauden erreminta batzuk ikusiko ditugu oraingoan.

Tripodea ahaztu zaizu?

Esposizio luzea egin nahian eta tripoderik ez? Ez kezkatu, alternatiba asko daude. Askotan, denbora luzeko argazki bat egin nahi dugu, edo argi gutxi dagoelako kamera egonkor jarri behar dugu, eta tripoderik ez dugu. Hemen doaz aukera batzuk.

Hormak, farolak...

Bila ezazu pareta edo antzeko zeozer zure gorputza egonkor egoteko, eta, argazkia egiterakoan, probatu bi argazki segidan egiten, bigarrena beti egonkorrago ateratzen baita. Eta sakatu botoia atzamarraren erdiko partearekin, ez puntarekin, horrela mugimendua gutxituko dugu.

Soka eta torlojuak

Hauxe da tripodeari alternatiba merke eta eroso da: soka bat, 1,5 metrokoa, eta torlojuak, gure kameraren oinarrian lotzeko. Zapaldu soka oin batekin, zure aurpegiaren altueran kamera edukita, eta sokak sortzen duen tentsioak lagunduko dizu egonkor mantentzen.



Dilista zakua

Dilistekin betetako zakutxo bat egin (arroza-edo izan daiteke baita ere). Kamera zakuaren gainean jarrita, oso erraza da forma moldatzea eta kamera egonkor uztea; hau batez ere abiadura motelak erabiltzeko edo lasaitasunez erabiltzeko da. Pisuagatik-edo ez baduzu gustuko, hartu zure jaka, lurrean edo murru batean jarri, eta berdin balioko du, gure arroparekin erraza da kamera nahi dugun moduan jartzea ere.




Mugimendua

Mugimendua beste tresna bat da; artistikoki gure argazkietan mugimendua erabil dezakegu, ekorketa (barrido) batekin, argiarekin margotzen, edo zergatik ez, normalean jende gainezka dauden tokiak jendez husteko.

Ekorketa edo barridoa

Ekorketa sinplean, argazkilariak elementu nagusiaren mugimendua jarraitzen du kamerarekin. Hori egiteko, finka ezazu abiadura baxua hondoa mugituta gera dadin eta zure elementu nagusia estatikoa izan dadin. Horrela, hondoa eragindako mugimendu-sentsazioak indarra emango dio zure elementu nagusiari. Teknika hori erabiltzean, erretratutako subjektua edo objektua ez da beti zehatz-mehatz agertuko, baina horrek askoz indar handiagoa emango dio irudiari. Batez ere kiroletan erabilia, ekorketa egiteko trebezia beharko dugu; normala da lehenengo saiakeran txarto ateratzea, beraz praktikatu eta esperimentatu ezazue.




Argiarekin margotzen

Light-painting bezala ezagutzen dena, argazkiaren historia bera da: argiarekin marraztea da. Gaez hobeto, baina egunez edo leku ilunetan ere egin daitekeen teknika da. Tripodea-edo beharko dugu kamera estatiko mantentzeko, eta abiadura oso baxua erabiliz, argia duen edozein gauzarekin marraztu ezazue, flash bat, led makila, mugikorra... Honetan mila aukera daude, zuen kontura irudimena lantzea!



Jendea dago soberan argazkian?

Denok egin nahi izan dugu argazkia leku turistikoren batean; jendea gainezka dago, eta ezin. Bada, tripodea eta Photoshop edo antzeko programa batzuekin aukera dago. Tripodea beharko dugu, argazki berdina zenbait alditan egin beharko dugulako, eta gero, edizioan, hutsik dauden zatiak hartu eta jendea desagerrarazi.



Efektuak


Gure irudimena lantzeko mila aukera daude, hemen batzuk bakarrik aipatuko ditugu, baina zuen esku gauza eta triki-mailu berriak bilatzea, argazki berriak egiten gozatzeko.

Ispiluak eta kristalak

Prisma bat hartu eta objektiboaren aurrean jarri, ikusiko duzu, adibidez, erretratuak egiteko zenbat aukera ematen dituen, edo koloreak zelan aldatzen dituen. Modu berean, ispiluekin jolas-tuz, konposizioari beste buelta bat ematen ikasiko dugu.




Ispilua eskura ez badugu, kontuan eduki urarekin ere ispilu-efektua lor dezakegula, edo mugikorraren pantaila beltzarekin ispilu efektua daukagula ere bai.



Kartoizko edo plastikozko filtroak

Askotan, objektiboaren aurrean jartzen ditugun filtroez aparte, gure filtro pertsonalak egin ditzakegu, irudian ikusten duzun bezala: kartoiarekin nahi duzun forma egin, eta objektiboaren aurrean jarrita, hondoan dauden argi lausotuek filtroaren forma hartuko dute.



Txeloarekin eta koloretako errotulagailuekin erretratu ezberdinak lor ditzakegu. Gaur egungo mugikorrek edo aplikazioek simulatzen dituzten efektuak eskuz egitea oso erraza da, eta, orokorrean, irudimena lantzen lagungarri izango zaigu.



Azaroan:

Mugikorra argazki-kamera bezala

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



Mezu gordeak

Erabili marrazkitxoen alfabetoa eta pertsonaia bakoitzak zer dioen jakingo duzu.
Esaldi horietako bat esaera zahar bat da; zein da?

1 _____

2 _____


3 _____

4 _____

ALFABETO A											
											
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L
											
M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X
											
Y	Z	.	:	,	!	?	"	+	=	%	


Hamabostekoa

Bai ederrak garai bateko hilarriak. Irudi honetan, ezkerre eta eskuina ez dira erabat simetrikoak. Bila itzazu bien artean dauden aldeak. Hamabost dira guztira.



Sudokua

Bai, haserre dago, baina lasai, berehala ahaztuko zaio. Bete ezazu sudokua, ESKOLA hitza osatzen duten hizkien bidez (E, S, K, O, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Lehiaketa **Non dago?**

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, ondoko saria irabaz dezakezu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria Umeentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, urte batetik gorako umeentzako hainbat liburu zozkatuko ditugu. Sari hori irabazi gura baduzu, urriaren 24a (domeka) baino lehen bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo bete webguneko **Zozketak** ataleko galdetegia.



Nola sustatuko zenuke euskara Uribe Kostan?



LANDER GUARROTXENA
ALGORTA

Txikitan, eskolan eta irakasleekin euskaraz egiten dugu berba, baina nagusitzen goazen heinean ohitura hori galdu egiten dugu, eta gaztelaniara pasatzen gara. Uste dut hori aldatu beharko genukeela.



PEIO LARRINAGA
ALGORTA

Denok euskaraz jakin arren, lagunon artean ez dugu euskaraz hitz egiten. Uste dut kontua izotza apurtzea dela; adibidez, tabernan eskatzerakoan, lehendabiziko hitza euskaraz izatea, eta horrela beti.



MARKEL ITURRATE
ALGORTA

Getxo bezalako herri batean, euskara normalizatzeko norbanako gisa hautu bat egin behar dugu, berba egiterakoan gure lehen hitza euskaraz izan dadin. Gero, euskararen inguruko espazio erosoak ere sortu beharko lirateke.



CARMEN BAJO
ALGORTA

Eskolan euskara ikasi arren, jendeak ez du euskaraz egiten, ez seme-alabakaz ezta lagunakaz ere. Orduan, etxetik kanpo gehiago bultzatu beharko litzateke. Baina norbanakotik hasi behar den zerbait da, baliabideak badaudelako.



MARIJOSE AGIRRE
BERGARA

Nik komertzioetan txartel bat jarriko nuke atarian adieraziz euskaraz hitz egin daitekeela bertan. Askotan gaztelaniaz hasten ditugu elkarriketak jakin gabe besteak euskara dakiela.



AMAIA AGIRRE
ANDOAIN

Antolatzen diren ekintzak euskaraz bakarrik izan beharko lirateke, elebidunak direla esaten dutenak beti amaitzen dutelako gaztelerez izaten. Elebidunak direla diote, baina hori irudia bakarrik da.

hiruka

HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan: 944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

Īñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko ikuskizun bietako batez gozatzeko sarrerak irabaz ditzakezu

Bi emanaldietako batera joan gura baduzu, urriaren 13a (eguztana) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (zein ikuskizunetarako sarrerak gura dituzun adierazi): hiruka@hiruka.eus; edo bete www.hiruka.eus webguneke Zozketak ataleko formularioa.



Sariak

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa



Azaroaren 7an, domekan, seigarren kanporaketa izango da Algortako Muxikebarri zentroan, 17:00etatik aurrera.

Etixerik txikiena antzezkizuna



Urriaren 17an, domekan, Yarleku Antzerkia konpainiak antzezkizun hau taularatuko dute Leioako Auditoriumean, 18:00etatik aurrera.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

6. KANPORAKETA

GETXO Azaroaren 7an, domeka, 17:00etan, Muxikebarri zentroan

Enare Muniategi Etxabe, Eneko Aldana Carrasco, Josune Aramendi Perez, Koldo Muñiz Aldamiz-Etxebarria, Malen Amenabar Larranaga eta Unai Mendiburu Valor.

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

BIZKAIKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2021

Argazkialaria: Argazkialaria

Bizkaia: Bizkaia

bbk: bbk

Getxo: Getxo

hiruka: hiruka



Getxon Hazi eta Hezi

Oferta educativa
extraescolar en
euskera



www.getxo.eus/euskara



Getxo
bizi ezazu



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

